

NOS MUEVE
EUSKADI
BAT EGINIK

EAJ-PNV HAUTESKUNDE PROGRAMA
UDAL ETA BATZAR NAGUSIETARAKO
HAUTESKUNDEAK
2019-2023

EAJ-PNV.EUS



› AURKIBIDEA

›1 SARRERA Pág. 4

- ORAINGO EGOERA. ABAGUNEA
- ERRONKAK. KLIMA ALDAKETA ETA BIZTANLERIA ZAHARTZEA

›2 JARDUERA EKONOMIKOAREN SEKTOREAK ENPLEGUAREN ETA GIZARTE ONGIZATEAREN SORTZAILE Pág. 9

- INDUSTRIA
- LEHEN SEKTOREA
- TURISMOA
- HIRI MERKATARITZA
- I+G+b. BERRIKUNTZA
- EKINTZAILTZEA
- NAZIOARTEKOTZEA
- ENPLEGUA ETA LANBIDE HEZIKETA

›3 ELKARRI KONEKTATURIKO HERRI, HIRI ETA LURRALDE IRAUNKOR ADIMENTSU ETA OSASUNGARRIAK Pág. 17

- ENERGIA
- INGURUMEN ERANTZUKIZUNA
- LURRALDE OREKATU ETA IRAUNKORRAK
- GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNAD
- ZAHARBERRITZEA ETA HIRIBERRITZEA
- OSASUNA

›4 KOMUNITATEA, ELKARBIZITZA, BERDINTASUNA, ELKARTASUNA EGITEN Pág. 25

- KULTURA
- EUSKARA
- INKLUSIOZKO ETA BIKAINASUNEZKO HEZKUNTZA
- FAMILIA ETA HAURRAK
- GAZTEDIA
- EMAKUMEEN ETA GIZONEN PAREKOTASUNA. GENERO BERDINTASUNA
- ADINEKOAK
- MENDEKOTASUNA
- EGOERA AHULEKO PERTSONAK
- IMMIGRAZIOA. ANIZTASUNA
- UDALZAINGOA, KOMUNITATEAREN POLIZIA

›5 GOBERNANTZA ONA ETA KUDEAKETA ERAGINKOR ETA EFIZIENTEA Pág. 32

- AURREKONTUAREN ZORROZTASUNA
- GARDENTASUNA
- PARTAIDETZA
- TOKI ETA FORU GOBERNU IREKIAK ETA PERTSONENGANDIK HURBILAK
- E-ADMINISTRAZIOA
- KALITATEZKO ZERBITZU IRAUNKORRAK GARATU ETA FINKATZEA
- KONTUAK EMATEA
- KONTROLA ETA EBALUAZIOA
- HERRI ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA ETA ELKARLAN PUBLIKO-PRIBATUA

›6 EUDEL Pág. 34

›7 DECÁLOGO Pág. 35

- KONPROMISO ETIKOA
- ONDO EGINDAKO LANAREN ESPERIENTZIA
- BESTE MAILA INSTITUZIONAL EKONOMIKO ETA SOZIALEN LANKIDETZA

› UDALERRIA EAJ-PNVREN IKUSPUNTUTIK

Udalerria egokia da pertsonen arazoak detektatu eta konpontzeko. Herritarren beharrak inguru hurbilean ase-bete daitezke modu ordenatuan, bizkor, efizientziaz eta eraginkortasunez. Arreta hurbiletik, egunerokotasunean.

Udalerria komunitate bat da, pertsonen bizikidetzak leku, konponbiderik onenak, erantzun anitzekoak eta, aldi berean, egoera konkretuetara egokitutakoak eskain daitezkeen lekua.

Sinetsi egiten dugu udalerriak oinarritzko atala direla Administrazio guztiek eskaintzen dituzten zerbitzuen engranajea. Diagnostiko zehatzaren eta orientazio zuzenaren sartzeko atea dira, pertsona bere osotasunean ondo garatzeko behar den jarraipena ahaztu gabe.

Udalak gure Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren oinarria dira, Euskadiren gizarte kohesiorako zutabe eta lorpen kolektibo bat da. Sistema «gazte» bat, egunez egun hobetzen eta finkatzen jarraitu behar duguna.

Sinetsi egiten dugu tokikoa auzokideen bizitza kalitate hobetzeko aliantzan eta koordinazioan diharduten eragileen eta herri erakundeen hausnarketa eta lankidetzak eremu dela.

Sinetsi egiten dugu udala politika publiko ororen inspiratzaile direla. Arazoen konponbideak komunitatetik eraikitzen dira, egoera errealetan oinarritutako erantzunak emanda.

Sinetsi egiten dugu udalak esparru bizi eta dinamikoak direla, ikuspegi integral batetik herritar guztiei aurrera egiten laguntzen dieten proiektuak eta neurriak egiteratu ahal izateko esperientzia eta bizipenetan aberatsak.

Gure emakume eta gizonen esperientziatik, kalitatezko zerbitzuak eskaintzen jarraitzeko tresnarik onena erakartzen eta horrela gizarte iraunkorrago, ekitatezkoago eta orekatuago baterako baldintzarik onenak ziurtatzen jakiteko esparruak.

Gero eta handiagoak diren behar berri eta gero eta askotarikoagoei erantzuteko desafioa dugu aurrean. Gure ahalegin eta esfortzu guztia, modu bateratu eta harmoniatuan, inklusiorantz eta giza garapen iraunkorrerantz aurrera egiteko erabili behar dugu.

Horrek izan behar du gure konpromisoa eta gure lehen-tasuna, orain eta etorkizunean: babestu, sostengatu, lagundu eta ahaldundu; inori ez diezaigun utzi atzean geratzen. Gure politiken eta zerbitzuen hartzaileen partaidetza beti kontuan harturik, gizarte guztia inplikatuta.

Mundu globalizatu batean, identitate propioa eta kide-tasun sentipena duten komunitateak dira elkartzun inguruneak eta gizarte kohesioa sortzen dutenak, krisietan ondoen irauten dutenak bizirik eta garatzeko aukerarik onenak dituztenak, bai arlo ekonomikoan bai arlo sozialean.

Identitatea eta komunitate sorkuntza, komunitatetzat balio berak dituzten pertsonen multzoa hartuta, hau da, euskara, hizkuntza integratzaile gisa, eta izateko eta gauzak egiteko modu bat dutenena, ideia hauetan oinarritua: berdintasuna, errespetua, esfortzua, nekaezintasuna, lankidetzak eta ondo egindako lana maite izatea.

Gure identitatearen defentsa eta gure komunitatea eraikitzea gure sustraiekin bat egitea da, norbere kultura babestuz, inguratzen gaituen munduari irekita mantentzen garen bitartean. Tradizioa eta modernitatea ere gure identitate ikurrak baitira. Beste errealitate batzuetako esperientziak geureganatu eta geurera egokitzeko gaitasuna dugulako, aldi berean apaltasunez geure ekarpena eginik.

Euskal Herria atzerrian egotea gure historiaren parte garrantzitsu bat da eta munduari irekita dagoenaren nortasuna erakusten du. Beste kultura batzuekin balioak eta ezagutzak trukatzeko dugun irrikak eta gure espiritu ekintzaileak kontinenteetan barrena ibiltzera eta bestelako bizimoduetan integratzera eramaten gaitu.

Komunitatea egitea, gizarte kohesioan lan egitea, tradizio eta modernitate binomioa eta munduari irekita dugun ikuspegia, ez bakarrik ikuspegi ekonomikotik baizik eta gizartearen eta prestakuntzaren ikuspegitik ere, EAJk politika publikoetan txertatzen dituen kontzeptuak eta balioak dira, tokiko gobernuetatik, foru gobernuetatik, udalerrietatik eta lurralde historikoetatik aplikatzen dituenak.

Horixe da EAJk daraman tokiko politikaren eta foru politikaren islarik onena.

EAJk esperientzia eta barneratze handia du tokiko esparruan, udalerrietatik eta lurraldeetatik hasita eta abiatuta eraikitako herrialde egitasmo bat duelako eta hautu hori egiten duelako. Horiexek dira EAJren giltzarriak eta hautuak, herrialdea tokikotik abiatuta eraikitzea, ekonomikotik eta sozialetik giza garapen iraunkor bat bultzatzen duten udalerrien eta lurraldeen sare bat sendotzea.

Komunitatea egiteko modua da, gizarte balioetan eraiki eta herritarren beharrak asetzeko, zerbitzu arreratu katalogo bat edukiz.

Udalek eta Aldundiek eraginkortasuna erakutsi dute hurbilekoa kudeatzen, herritarrarekiko bizikidetzak mailatik gainerako herri erakundeetarantz gero eta eskaera handiagoko kate bat aktibatuz, herritarren beharrei egokitu-tako benetako erantzunak emateko gaitasuna duen katea.

Ez dugu ahaztu behar, gainera, udalerrien % 80k 5.000 biztanle baino gutxiago dituztela, eta horregatik sareko lan sistema bat ezarri beharra dagoela udalari eta lurralde guztien artean, zerbitzu prestazioa eta herritarren arreta optimizatzeko.

Gainera, gaur egun herri erakundeen eta herritarren arteko harremana partaidetzan oinarritzen da, zerbitzu publikoetako diseinua elkarrekin sortzea du oinarri. Horregatik, tokiko erakundeek, batez ere udalek, hartzen duten erantzukizun nagusia herritarren premiak identifikatzea eta arreta pertsonalizatua dira.

Herritarrentzako zerbitzua hobetzea da udalgintzaren eta foru lanaren funtsa. Gure erronka partaidetzan eta gardentasunean sostengatzen diren toki zerbitzu aurreratuak lortzeak izan behar du. Herritarrengandik hurbil egonik, udalek eta aldundiek beharrak eta esperantzak ezagutu behar dituzte eta zerbitzuak horietara egokitu, parte hartzeko bideak ezarriz eta berrikuntza gaitasunak garatuz, bai zerbitzuen diseinuan bai zerbitzuak emateko moduan.

Gure udalek eta foru lurraldeek ohiz kanpoko garapena izan dute demokrazialdian tokiko gobernuen eta foru gobernuen hamarkada batzuetan. EAJk gobernatzen dituen herri erakundeek kudeaketa eraginkorra, efizientea eta iraunkorra egin dute lurralde kohesio-tuago eta elkarlotuago hauetan.

Tokiko politika eta foru politika ulertzeko modu honi eta EAJk Euskadiko udaletan eta lurralde historikoetan egin duen kudeaketari esker, emaitza garrantzitsuak lortu ahal izan ditugu.

Munduko giza garapen indizerik handienetako bat daukagu, bizi esperantza, heziketa maila eta errenta eskuragarria bezalako ezaugarriak neurtzen dituen Nazio Batuen garapenerako programak (UNDP) prestatutako adierazlearen arabera. EAJren tokiko gobernuek eta foru gobernuek udal eta lurralde historiko guztietan egin duten hezkuntzaren, osasunaren, gizarte kohesioaren, hazkuntza ekonomikoaren eta errenta birbanatzearen aldeko hautuaren adierazle da hori.

Gure gizarte zerbitzuen sistema gure inguruneko aurreratuenerako bat da eta erreferentzia bat da. Gainera, aspaldidanik, gizarte politika aitzindariak garatu ditugu, adibidez Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE), eta funtsezkoak izan dira gure udalari eta lurraldeen gizarte kohesioa bermatzeko.



Ekonomia ireki eta nazioartekotua daukagu. Sistema zientifiko-teknologiko bikaina daukagu, eta gure inguru-nean eta kanpoan erreferentzia diren enpresa enplegu-sortzaileen egoitza gara. Erakargarritasun turistikoa garrantzitsu bat daukagu. Azpimarratzekoa da kanpoarekin eta barruarekin dugun konektagarritasun bikaina, eta garraio publikoaren sistema oso eta efiziente bat ere bai.

Baina lanean jarraitu behar da... Etengabe aldatzen eta ziurgabetasunak eta aukerak sortzen ari den nazioarteko jokaleku bat daukagu aurrean, eta Euskadik horretarako prest egon behar du.

ORAINGO EGOERA. ABAGUNEA

Euskal ekonomia, urte batzuetan hazkuntza sendo eta sostengatua eduki ondoren, desazelerazioaren bidean sartu da. Erritmo galera eta desazelerazio hori ez da soilik euskal ekonomiarena, inguruneko ekonomiarik gehienetan nabaritzen da, bai Europar Batasun osoan bai Alemania eta Frantzia bezalako herrialde bultzagileetan.

Desazelerazio honen jatorria dinamismo gutxiagoko giro ekonomikoan dago, giro horretan zenbait faktorek ziurgabetasun maila handi samarra sortu dute. Besteak beste, Brexita, protekzionismotik sortutako nazioarteko atezu komertzialak edo nazioarteko atezu geopolitikoak nabarmentzen dira.

Aipatutako abaguneak bereziki eragiten dio industria sektoreari, lehiaketarekiko esposizio handiena duena delako. Industriak gainditu behar dituen zailtasunak ziurgabetasuna sortzen dute, batez ere automobilgintza sektorean. Eraikuntzak, ostera, hedapen handiko unea bizi du, eta zerbitzu sektorea da profil egonkorrena duena.

Enplegu sorkuntzak indarra erakusten jarraitzen du. Enplegu sorkuntza handiari eta biztanleria aktiboaren egonkortasunari esker langabezia berriro jaitsi da. Hala ere, aurreikusita dago langabezia tasaren murrizketa aurrerantzean hain handia ez dela izango. Alde batetik, enpleguaren dinamismoa bera ari da lanpostu-eskaintzaile berriak erakartzen. Beste aldetik, langabezia gutxitzearen ondorioz, eskaintzen diren lanpostu hutsetarako prest egongo diren pertsonak gero eta gutxiago izango direnez, eskatzen den profila aurkitzeko posibilitateak ere gero eta urriagoak izango dira.

Beste ezaugarrietako bat azken kontsumoaren aurreakada moteldu izana da, bai pribatua bai publikoa. Familien kontsumoa moteltze horrek pentsarazten du eskariaren zati handi bat, krisialdiko urteetan geroratu-ta egon dena, asebate dela, eta, une honetan, kontsumoaren eboluzioa gastu ahalmenari lotuago dagoela, bereziki enplegu sorkuntzan eta soldaten igoeran oinarrituta. Benetako soldatek gora egiten ez dutenez, enplegu gehiago izateak markatuko du neurri handi batean kontsumoaren etorkizuneko bilakaera.

Horregatik zenbait jarduera ildo bai ekonomiko bai sozialetan egin behar da lan, eta giltzarri diren bektore bitan sakondu behar da, hots, berrikuntza eta digitalizazioan eta nazioartekotzean.

Bada denbora bat euskal herri erakundeak Espezializazio Adimentsuko Estrategia (RIS3) egikaritzen hasi direla, bere lehentasun eremuak eta bere aukera hobiak gidari. Ezagutzaren gizartearen nodo moduan eta erronka globalei erantzun lokalak ematen dizkien munduko leku moduan Euskadik dituen indarguneen aldeko hautua egingo duten eskalako ekonomiak lortzea da helburua. Berrikuntza zientifiko eta teknologikoan aurrera egiten jarraitzea, laugarren iraultza industrialari aurre egitea eta enpresaren eraldaketa digitala babes-tea da kontua.

Euskadi nazioartekotzea lehentasun bat da herrialderako, eta zeharretara, barnean hartuz eta osorik ekiten zaio, halako kontzepzio batek Euskadik nazioarteko jokalekuan duen dinamismoa eta diziplina anitzeko posizioa areagotzen laguntzen baitu.

Nazioartekotzearen kultura maila guztietan Euskadiko esparru guztietan zabalduko duen elkarlan eta zabal-kunde mekanismo baten bidez politika publikoetan zeharretara jardutea sustatzen jarraitzea, herri erakunde-arten arteko koordinazio handiagoa lortzea eta eragile sozioekonomikoen eta instituzionalen atxikimendua lortzea izango da erronka.

ERRONKAK. KLIMA ALDAKETA ETA BIZTANLERIA ZAHARTZEA

2019ko urtarrileko Davosko foro ekonomikoaren arabera, klima aldaketa eta biztanleria zahartzea dira munduan ekonomia aurreratuen hazkuntza ekonomikoaren uzkur-durari zuzenean eragiten dioten fenomenoetako bi.

Klima aldaketaren aurkako borroka Euskadiri, gure ekonomia-aren garapenari eta gure gizarte ongizateari zuzenean eragiten dioten nazioarte mailako erronketako bat da. Borroka hori, beraz, iraunkortasun energetikoaren arloan jarduteko motibazio nagusietako bat da. Esparru honetan erabakiak hartzea oinarritzkoa da klima aldaketa eta bere ondorioak mugatzeko eta garapen iraunkorrari eta mundu orekatuago bati laguntzeko. Esan daiteke klima aldaketa ezitzeke gaur egun ezarrita dauden esfortzuak baino gehiago egin ezean, mende honen amaierako inpaktua atzerazina izango dela.

Euskadik ez dauka energia baliabiderik. Gure energia primarioaren ekoizpena gure energia eskariaren % 6,7 baino ez da, eta horrek gainerako % 93 inportatzera behartzen gaitu, eta ia osorik dator erregai fosiletatik, hain zuzen berotegi gasen emisioak eragiten dituztenetatik.

Gure energia eredu, gehienbat erregai fosilak erretzen oinarritua, beraz, berotegi gasen emisioen erantzulea da gainera, eta, ondorioz, klima aldaketaren erruduna. Horregatik honelako emisioak zeharo murrizteko neurriak landu behar dira, emisioak nahitaez murriztu beharra eta energia berriztagarrietatik hornidura areagotzea konbinatzen duten politikekin, arreta berezia jarriz garraioan, mugikortasun iraunkorreko eredu baterantz trantsizioa egin behar baitu.

Hori izan da eta da Euskadiko herri erakundeen lana orain dela urte asko. Jarduera planak martxan jarriz eta oraingo konpromisoa areagotuz, beti Nazio Batuen eta Europar Batasunaren aldarrikapenen ildoan.

Testuinguru horretan, 2015eko Parisko akordioaren helburua trantsizio energetiko bat da, karbono gutxiko garapen eredu batekin eta klima aldaketarekiko erresilientziaduna den garapen eredu batekin burutzen dena.

Europar Batasunaren 2030erak helburuen artean berotegi gasak 1990 urtearen aldean % 40 gutxitzea, energia guztietatik berriztagarrien kuota % 32 izatera iristea eta efizientzia energetikoan % 32,5 hobetzea daude.

Helburu horietan konpromisoa hartuta dago EAJ Euskadin gure herri erakundeen bitartez eta enpresa-eragileekin eta oro har herritarrekin elkarlanean. Helburu horiek kolokan jartzen dituzte gure ekoizpen sistemak, garraioa eta mugikortasuna, gure hiri eta herriak eratzten diren era eta gure bizimodua kontsumo ohiturei dagokienez. Horietan guztietan aurrezte eta efizientzia energetikoaren politikak ezinbestekoak dira, eta ener-

gia berriztagarrien mailaz mailako garapena pizgarritz hornitzen dituztenak ere bai.

Oraintsu, otsailaren 21ean, Eusko Legebiltzarrak Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legea onartu du. Lehen artikulua dioen bezala «Lege honen xedea da, energia-politikaren joera orokorra kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan eta sektore pribatuan jasangarritasun energetikoaren arau-oinarriak ezartzea, eta batzuek eta besteek zer eginbehar eta betebehar dituzten antolatzea. Batez ere, energia-aurrezpeneko eta efizientzia energetikoa izateko neurriak bultzatzera bideratuko dira eginbehar eta betebehar horiek, bai eta energia berriztagarriak sustatzera eta ezartzera ere».

Era berean, arlo sozialean aldaketa fenomenoek eta ziurgabetasunak jarraitzen dute. Biztanleriaren piramidea alderantzikatzea, biztanleria zahartzea, familia eredu berriak, immigrazioaren fenomeno etengabea izan dira gure gizarte-ongizate sistema mantendu eta finkatzeko helburuz martxan jarri beharreko politika publikoak eta moduak birplanteatzera eraman gaituztenak.



Biztanleria zahartzea erronka konplexua da, zenbait fronte eta politikatatik ekin behar zaiona. Jaiotza tasa apala gai sozial edo estrukturaleri lotuta, esate baterako, ikuspegi materiala, bizilekuarena eta lanarena, gazteen enplegu prekarioa edo genero desberdintasuna zaintzan, pobreziaren kronifikazioa eta abar, horiek dira belaunaldi erreleboa neurri handi batean zailtzen dutenak.

Jaiotza tasa igotzen laguntzea eta familiei laguntzeko politikak, genero desberdintasunari kontra egingo diotenak, bultzatzea, politika soziosanitarioak garatzea, biztanleria zahartzeari aurre egiteko, gazteen enplegua eta belaunaldi erreleboa bultzatzea edo kulturen arteko elkarbizitzan eta integrazioan aurrera egitea, elkarri lotuta, demografiaren erronkari aurre egiteko balio behar duten mihimenak dira.

Politika horietako bakoitzak aurrean dugun erronka demografikoa osatzen duten dimentsio guztiei ekiten laguntzen du, eta politika publikoak egiteratuz ekintza publikoa orain eta etorkizunean markatu beharko dute. Horien erabilgarritasuna balioztatzeke modua emango duten ebaluazioen mendean jarri beharko dira eta horien inpaktuak politika sorrarazten duten beharrei erantzuten dien zehaztu beharko da, eta, kasua bada, erabilgarritasun hori hobetzeko helburuz birformulatu beharko dira.

Erronka demografikoaren aurrean funtsezkoa da hezkuntza bikaintasunezkoa, unibertetsala, inklusiozkoa izatea, eskolaratze berezia eragozten duena eta, udalerrri eta lurralde historiko guztietako gazte guztiei, aukera berdinak izatea ahalbidetuko diena, nongoak diren edo nolako gizarte eta hezkuntza maila duten gorabehera.

Udalerriak eta lurraldeak, tokiko politikak eta foru politikak ez daude aldaketa eta ziurgabetasun jokalekuetatik kanpo.

Giza garapen iraunkorraren hautua indartzen duten baliabideak erabiltzeko bidea markatzen dute erronka horiek guztiek, kalitatezko hazkuntza ekonomikoa gizarte kohesioarekin konbinatuz, binomio banaezina baita, eta baliabide horiek funtsezko zerbitzu publikoak eta gizarte politikak Euskadiko udalerrri eta lurralde historiko guztietako bizitza kalitatea finkatzeko ardatz bilakarazten dituzte.

Beraz, eta giza garapen iraunkorraren helburuen ildotik, EAJK tokiko gobernuen eta foru gobernuen eginkizunetarako jarduera konpromiso hauek aurkezten ditu.



» JARDUERA EKONOMIKOAREN SEKTOREAK ENPLEGUAREN ETA GIZARTE ONGIZATEAREN SORTZAILE

Etorkizuneko hazkuntza esperantzak konplikatuak dira. Europaren hedapena bultzatu duten faktoreetako batzuen efektuek desagertzera joko dute. Horri gehitzen zaizkio politika bakartzaileen arriskuak, nazioarteko merkataritzari kalte egiten diotenak, eta liskar eta atezu geopolitikoak gordintzea.

Gainera, ekoizpen joeren ahultasunak eta lan indarraren hazkuntza moteltzeak, biztanleria zahartzearen ondorioz, ekonomia aurreratuen epe ertaineko esperantzak mugatuko dituzte.

Datozen urteetarako euskal ekonomiaren hazkuntza tasa potentzialak desazelerazioa jasango du lan faktorearen portaerak zeharo baldintzatuta; izan ere, biztanleria zahartzearen ondorioz biztanleria aktiboa gutxitu egiten baita, eta horrek epe luzerako hazkuntza mugatzen du eta, beraz, etorkizuneko ongizatea ere bai. Proiekzio demografikoek aurreikusten dutenez, biztanleria potentzialki aktiboa, 20 eta 64 urte bitartean kontzentratzen dena batez ere, etengabe gutxitzen joango da hamarkada honetan geratzen den denboran eta datorren hamarkadan.

Ekonomia gero eta gehiago hirugarren sektorekoa izango denez, horrek zerbitzuek ekoizpen ehun modernoaren garapenerako eta enplegura iristeko ate gisa duten rol erabakigarria areagotuko du datozen urteetan.

Nahikoa pertsona izatea erronka demografiko bat izango da, eta horri gehitu egingo zaio horien kualifikazioa eta kompetentziak enpresek eskatzen dituztenetara egokitzea. Aspaldion doitasun falta nabaritzen da Europar Batasunaren barruan eta euskal lan merkatuan lan eskaintzaren eta eskariaren artean, eta desoreka horiek areagotu egingo dira bizkortzea finkatzearekin, ekonomiaren digitalizazioarekin eta biztanleria gizarte zaharrago baterantz izaten ari den joerarekin. Egokitzapen behar horrek agerian uzten du giza kapitalean inbertsioa handitzearen eta lan merkatuaren beharretara orientatzearen garrantzia, aurrerabide teknologikoetatik eta globalizaziotik datozen erronkei aurre egin behar baita.

Errealitate ekonomikoak 2014an hasi zuen bizkorraldia eta BPGd-ean islatzen da, baina enpleguaren datuek agerian uzten dute ez ditugula lortu oraindik krisialdiaren aurreko mailak.

Euskal ekonomia gaur egun egonkor dagoela ematen du baina desazelerazio zeinu argiak ditu.

Krisialdiarekin euskal ekonomiaren hirugarren sektorea hazi zen, eta zerbitzuek gero eta garrantzi handia-

goa hartu zuten. Krisialdiaren ondorioz euskal ekoizpen egiturak pisua galdu bazuen ere, Euskadin oraindik pisu handia du bere industriak, bai Estatuaren batezbestekoa bai EB-28 eta euroguneara baino handiagoa.

Industriak euskal industrian duen pisua ikusirik, garrantzi berezia du ekonomia 4.0-rantz eraldatzea, digitalizazio prozesuan sostengatutako laugarren iraultza industriala deritzonaren emaitza gisa. Europako konbergentzia digitalerantz joateko beharrezkoa da prestazio handiko benetako informazio autobideetarantz aurrera egitea. Gainera, arreta berezia eskaini behar zaio talentu digitalari, etxeetan zerbitzu digitalen erabilera areagotu behar da eta euskal enpresen merkataritzaren garapena areagotu behar da, merkatu berrietara sartu ahal daitezen, besteak beste nazioartekoetara.

INDUSTRIA

EAJn badakigu zenbaterainoko garrantzia duen industria lehiakor bat edukitzeak, aberastasuna, enplegua eta ongizatea sortzeko funtsezko euskarri gisa. EAJk lehiakortasuna hobetzeko hautua egin du, beti kontuan hartuta helburu horrek elkargarria izan behar duela iraunkortasunaren eta gizarte babesaren printzipioekin.

Enplegua enpresek sortzen dute, eta, beraz, horiek sortu, finkatu eta garatzen laguntzea EAJren jarduera ildo estrategikoetako bat da, herrialdeko erakunde maila guztiekin elkarlanean. Paraleloki emakumeen eta gizonen prestakuntzaren eta gaikuntzaren hautua egiten dugu, sortzen diren enplegu aukerak aprobetxatzeko.

Gure kulturarekin, gure tradizioarekin bat datorren politika industrialaren hautua egin behar dugu, eta gure udalerrri eta lurraldeen garapen ekonomiko iraunkorrerako oinarri gisa ekoizpen ekonomia hobetsi.

EAJk uste du politika industrialaren enpresen ardatz zentral gisa finkatu behar dela, jarduera eta enplegua sortzeko arduradun nagusiak baitira. Tokiko gobernuei eta foru gobernuei enpresak eratu eta garatu ahal izateko inguruneak giroak eta egokierak sortzea dagokie.

Gure jakinduria industrialaren, gure ezagutza teknologikoa, lurraldea bera eta gure izadi ingurunearen ezaggarriak, bai eta sektore lehenetsiak bereziki zehaztu eta lagundu ahal izateko antolamendu ekonomikoa egiteko udalerriek eta lurraldeek duten ahalmena ere, EAJren

ikuspuntutik oinarri sendoak dira politika industrialaren eredu propio bat garatzeko.

EAJk konpromisoa hartzen du euskal industria 4.0 estrategia indartzeko lehiakortasun industrialaren beste maila batean aitzindari izateko. Ekoizpen jarduera tradizionalak teknologikoki aurreratutako diren industria berrietara aldatzeko hautua, etengabe kalitatearen eta balio erantsiaren alde eginez.

Jarduera ildo honetan EAJk manufaktura aurreratuaren estrategia global bat martxan jartzea hautatu du, manufaktura aurreratuarekin erlazionatutako teknologietako eta kudeaketa sistemetakiko ikasleak, teknologoak eta profesionalak modu praktikoan prestatzeko programak garatuz eta atzerrik teknologia maia handiko manufaktura aurreratuako proiektuak erakarriz euskal enpresetan fabrikazio aurreratuaren estrategiak osatzeko.

EAJk ETEen eta euren enpresa bideragarritasunaren aldeko apustu irmoa adierazten du eta horien izaerara eta enpresa ziklora egokitutako berregituraketa eta finantzaketa konponbideak babesten du. EAJrentzat helburua enpresa bideragarrien berregituraketari konponbidea ematea da eta horiek mantentzen eta enpresa ehun osoa proiektatzen laguntzea.

EAJk uste du bizkortze ekonomikoak proiektu industrial berriak behar dituela; aitzindari diren enpresa proiektu berriak identifikatu behar dira eta horien gainean negozio aukera berriak garatu nazioarteko merkatuan.

EAJk ehun ekonomikoa aukera sektore berrietarantz dibertsifikatzearekin eta espezializatzearekin duen konpromisoa adierazten du, Espezializazio Adimentsuko Estrategia (RIS 3 Euskadi) erabiliz euskal industriek energiarekin, osasunarekin eta aukera hobi berriak deritzenekin elkarlana egitea sustatzeko (elikaduraren, hiri habitat eta eraikuntza iraunkorraren, ekosistemen eta sormen industrien sektoreetan).

EAJk gorantz datozen sektoreetan dibertsifikatzearen eta balio erantsi handiko jarduera berrien garapenaren aldeko hautua egiten du. (Ekonomia berdearekin, energia berriztagarriekin eta energia sare adimentsuekin erlazionatutako proiektuak).

EAJk industriari lotutako enpresa berriak eta zerbitzu aurreratuak garatzearen hautua egiten du, enpresen lehiakortasuna hobetzeko berrikuntza estrategiak bultzatuz.

Gainera, genero berdintasuna alde guztietan agertzen ari da eta enpresek ezin diete aurrerantzean gauza hauei ezikusi egin lantokian.

Genero berdintasunaren Bloomberg indizeak (Gender Equality Index) bereizi egiten ditu genero informazioko gardentasunarekin eta enpresetan emakumeen berdintasunak aurrera egitearekin konpromisoa hartu duten konpainiak. Indize hori gaur egun erreferentziatiko bat da enpresetako berdintasun politikak ziurtatzeko eta horien tenperatura hartzeko.

EAJren iritziz, genero berdintasuna bultzatzen duten politikak eta jokabideak onuragarriak dira enpresa guztietarako, eta inklusioa lehenesten dutenek, soldata arrakalak ezabatuz eta emakumeak enpresen zuzendaritza postuetan jarriz, Europako Batzordearen 2012ko zuzendaritza ezarritakoaren ildotik, hori egiten ez dutenak gainditzeko joera dute. Enpresa horiek erreferentzia bilakatzen dira eta hori inbertsiogileak kontuan hartzen ari diren zerbait da. Beraz, enpresetan genero berdintasuneko politikak egitea EAJk bere tokiko gobernuetatik eta foru gobernuetatik bultzatuko duen helburu bat da.

LEHEN SEKTOREA

EAJk ez ditu ulertzen Euskadiko udalerrri eta lurraldeak lehen sektorearekin eta landa eta itsasertz ingurunearekin duten lotura gabe.

Lehen sektorea funtsezko balio bat da Euskadiko udalerrri eta lurraldeetarako, ekonomiarako eta enplegurako duten ekarpenagatik ez ezik, gure herrialdearen identitate sozialarekin lotura estua dutelako. Euren gastronomia, euren tradizioak, paisaiak, ingurumen iraunkortasuna eta kultura sustriak estu elkartuta daude lehen sektorearen izaerarekin.

EAJk lehen sektoreari laguntzeko estrategiarekin jarraituko du, landa eta itsasertz eremuak hirialdeekin berdinez azpiegituretan eta zerbitzuetan, landaguneak eta itsasertz eremuak aktibo mantenduz, ustiapenen errentagarritasunari lagunduz, garapen iraunkor eta kalitatezkoaren estrategia berritzailea aplikatuz, ingurumen iraunkortasuna bultzatuz eta elikaduraren balio katea balioztatuz.

EAJk uste du beharrezkoa dela gure sektore tradizionaleen berrikuntza bultzatzen eta modernizatzen aurrera jarraitzea, hau da, nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta abar. Honelako sektoreetan berrikuntza ekoizkin eta zerbitzuen baliora orientatu behar da, teknologiaren potentziala aprobetxatuz eta merkaturatze estrategia berritzaileak garatuz.

EAJren helburua da Udalerrriak eta lurraldeak nekazaritza, arrantza, basogintza eta elikadura berrikuntzarekin

erlazionatutako sareetan erreferentzia eredu izatea jardue-
ra esparru guztietan. Halaber, EAJk bere tokiko gobernu-
etatik eta foru gobernuetatik lehen sektorearen eta nekaza-
ritzako elikadura industriaren dinamizazioa suspertuko du
lurraldea hezurramitu eta orekatzeko ardatz direlako.

TURISMOA

Turismoa, jarduera ekonomikoa eta enplegua dinamiza-
tzen duen faktore bat izateaz gain, tresna ahaltsu bat da
nazioartekotze prozesua bultzatzeko eta gure udalerrri eta
lurraldeak irekitzeko. Bisitatzen gaituzten pertsonekin el-
kar ezagutzea eta harremana izatea funtsezko urrats bat
da gero beste elkarlan posibilitate batzuei ekiteko enpre-
sa, teknologia, herri erakunde edo kultura esparruan.

Turismoa herrialde baten markaren suspertzaile handi
bat da. Gainera funtsezko sektore bilakatu da udalerrri
eta lurraldeen aurrerabide sozioekonomikorako eta egi-
tura ekonomikoa dibertsifikatzeko.


Turismoak helmugaren profila jasotzen laguntzen du mun-
duari euskal gizartearen irudia erakutsiz; bisitatzen gaituz-
ten pertsonen gure ingurunea ezagutzeak beste esparru
batzuetan posibilitateak irekitzen ditu, hala nola, kulturen,
enpresa arloan, teknologikoan eta herri-erakunde mailan.

EAJren konpromisoa da tokiko gobernuetatik eta foru
gobernetatik euskal industria turistikoaren oinarri sendo
baten gainean antolatzeke zimentarriak ezartzea, harmo-
niaz hazi ahal izateko, merkatu guztietako aukera guztiak
aprobetxatuz eta turismo jomuga kalitatezkoak, lehiako-
rrak eta berritzaileak eskainiz.

EAJk izadi eta kultura ondarearen babesa, sektorearen bi-
deragarritasun ekonomikoa eta gizarte kohesioa kontuan
hartuz bultzatuko du turismoaren garapena. EAJren kon-
promisoa Euskadiko udalerrri eta lurraldeak jomuga turisti-
ko iraunkorren artean erreferentzia bihurtzea da, herri era-
kundearen elkarlanaz turismo sistema guztiaren plangintza
eta kudeaketa integratuko ikuspegi bat bereganatuz.

EAJk, Euskadin, bere herrietan, hirietan eta lurraldeetan
aberastasuna eta enplegua sortzen dituen sektore indus-
triala denez, turismoaren dinamismoa aprobetxatzearen
hautua egiten du. Era berean egiten du Euskadiko uda-
lerrri eta lurralde guztietan turismo enpresak hazi eta in-
dartzeko berariazko jarduerak garatzearen hautua.

EAJk herri erakundearen lankidetzara eta elkarlana abiapun-
tutzat hartuz, Euskadi, bere herriak, hiriak eta lurraldeak



jomuga iraunkor eta irisgarri egitea proposatzen du,
jomuga turistiko bikaina, jomuga turistiko adimentsua,
lehiakortasun orokorra handituz.

HIRI MERKATARITZA

Merkataritza oinarrizko sektore bat da, bai bere neurrien-
gatik bai gizartearen duen garrantziagatik eta hiri bizitza
egituratzeko duen ahalmenagatik. EAJn hiriko merkata-
ritza hurbilaren garrantziak jabetuta gaude, eta badakigu
gure herri eta hirien antolaketa espazialerako funtsezkoa
dela hiri diseinuagatik eta gizarte harremanengatik, hiri
eredu oparo, maitekor, seguru eta elkarbizitzako bat era-
tzen duelako.

EAJk tokiko gobernuetatik eta foru gobernuetatik plante-
tzen dituen merkataritza politikaren ildoak merkaturatze
teknikak eta bideak modernizatzea dute oinarri, eta saltoki
txikiek jasaten dituzten kostuak murriztea ere bai. Era berean
konpromisoa hartzen dugu finantzaketa iturrien irispidea eta
prestakuntza digitala eta negozio eredu eta kudeaketa au-
rreratuaren eredu berritzaileak hobetzen lan egiteko.

EAJk saltoki txikiaren rola indartzea hautatu du tokiko dinamizatzaile eta enplegu-sortzaile izateko, saltoki txikian kontsumoa pizgarritz hornitzeko ekinbideak garatuz.

EAJk hautu argia egiten du ingurumenaren ikuspegitik iraunkorragoa den antolamendu espazial bat ahalbidetuko duten hiri eta merkataritza inguruneetako hiri eta herri trinko, bizi eta sozialki kohesionatuetan txertatutako Europako merkataritza eredu batean inspiratutako hiri merkataritza baten alde.

Eta gainera, ekonomia jardueraren sektore guztietan jarduera ildo hauek bultzatu behar dira.

I+G+b. BERRIKUNTZA

EAJren iritziz, gure ehun ekonomiko eta sozialaren eraldaketan funtsezko giltzarriak izango dira enpresen eta gizartearen ahalmen ezagutza-sortzailea eta berrikuntza ahalmena, Euskadiko udalerrri eta lurraldeetan sortutako ezagutza balio ekonomiko eta sozial bihurtzeko ahalmena.

EAJren iritziz, ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza dira gure eredu ekonomikoa eraldatzeko eta udalerrri eta lurralde guztietan industria eta enpresa ehun osoaren lehiakortasuna handitzeko palankak.

Berrikuntzan oinarrituta dagoen enpresen lehiakortasuna bermerik onena da gizonentzat eta emakumeentzat aberastasuna sortzeko eta kalitatezko enplegua sortzeko.

Berrikuntzaren aldeko estrategia batean, enpresa handien indar bultzagilea aitortzeaz gain, beharrezkoa da enpresa txikiak I+G+b balio katean sartzea. Hain zuzen enpresa bultzagileak dira ETEen berrikuntza dinamizatzen rol nagusia dutenak. EAJn ETEen eta enpresa bultzagileen aliantza hori indartu behar dela deritzogu, berrikuntzaren eta elkarren lehiakortasunaren onetan izango baita.

Digitalizazioaren erronkak zenbait jarduera ildo hartzen ditu, enpresetatik industria adimentsuaren garapenean; gizartetik oro har bete-beteko gizarte garapen baterako kompetentzia digitalak pertsoneri bermatuz; administrazioetatik herritarren partaidetza eta zerbitzu publiko aurreratuak ematea bultzatuz, eta lurralde adimentsu eta kohesionatuetatik garapen horretarako behar diren azpiegitura teknologikoekin erlazionatutako erronkak jasotzen dituztelako, horrela hirialdeetan eta landagunee-tan balio erantsi handiko zerbituak ezarri ahal daitezen, lurraldearen kohesio handiago ziurtatuz horretara.

Berrikuntza zientifiko eta teknologikoan aurrera egitea, laugarren iraultza industrialari aurre egitea eta enpresaren eraldaketa digitala bultzatzea bilatzen du digitalizazioaren erronkak.

RIS3 Euskadi Espezializazio Adimentsuko Estrategiaren esparru lehenetsi bat da fabrikazio aurreratuaren estrategia. Ezagutzan intentsiboenak eta balio erantsi handienekoak diren fabrikazio jarduerak bultzatuz, oinarri industrialeko ekonomia gisa Euskadiko udalerrien eta lurralde historikoen posizioa indartzea da haren helburua. Diziplina anizkoitasuna eta konbergentzia teknologikoa ahalmenak eta fabrikazio irtenbideak garatzeko eta tokiko eta nazioarteko balio kateetan txertatzeko, fabrikazio aurreratuaren erronkei erantzuna emate aldera, sektore ba-koitzaren eta sektoreetako enpresen berezitasunak batuz.

Berrikuntza eta gizarte politika estu erlazionatuta daude. EAJk I+G+b strategiaren hautua egiten du gizarte politika iraunkorrak mantentzeko oinarrizko ardatzetako bat delako.

EAJk espezializazio adimentsuaren hautua egiten du. Ahalmen zientifiko eta teknologiko handienak eta enpresa potentzialtasunak dituzten sektore eta jarduera estrategikoetan bildu behar dira ahaleginak. EAJk RIS3 espezializazio adimentsuan sakonduko du hiru lehentasun estrategiko indartuz; fabrikazio aurreratu, energia eta osasuna. Era berean, aukera lurraldeak deritzenak bultzatuko dira, hau da, elikadura, ekosistemak, hiri habitata eta kultura eta sormen industriak.

EAJk Euskadiko Espezializazio Adimentsuko Estrategiaren garapena babesten du, emaitzetara orientatutako garapen teknologiko eta esperimentalak indartuz eta jabetza industrialak eta horren balio handitzea sustatuz.

EAJk enpresetan berrikuntza ez teknologikoa bultzatu eta suspertzearen hautua egiten du, enpresen lehiakortasuna hobetzeko eta berrikuntza teknologikoko neurriek arrakastarako nahitaezko elementua delako.

EAJk berrikuntza irekiko prozesuak erraztu nahi ditu, erreferentziako enpresak startup global edo nazioartekoekin harremanetan jarriz.

EAJk, tokiko gobernuetatik eta foru gobernuetatik, bide azpiegiturak berritzeko plan bat burutuko du, sektoreko eragile eta enpresekin elkarlanean, zenbait esparru hartuz, hala nola, aktiboen kudeaketa, ITS eta sistema kooperatiboak, ibilgailu-azpiegitura konexioa, eta erabiltzailearentzako komunikazio esparruak. Era berean, EAJk korridore kooperatibo bat zerbitzuak jartzea bultzatuko

du, azpiegitura eta ibilgailu arteko komunikazioaren esparruan berrikuntza proiektuak aztertu ahal izateko.

EAJk elkarlan publiko-pribatutik enpresa berrikuntza, gizarte berrikuntza eta sektore publikoaren berrikuntza bultzatuko ditu, berrikuntza oraingo eta etorkizuneko estrategiatzat hartzearen ildotik datozen udalen eta lurraldeen multzo harmoniatuan.

EAJk enpresetako eta enpresen elkarteetako zuzendaritzetan eta zuzendaritza organoetan emakume kopuru handiagoa jartzearen hautua egiten du.

EKINTZAILETZA

Enpresen eta pertsonen izaera eta kultura ekintzaileari esker, udalerriak eta lurraldeak gizarte aurreratua bilakatu dira nazioarteko esparruan. EAJk uste du udalerriek eta lurraldeek arriskuak bere gain hartzeko ahalmena duen gizarte ekintzaile bat osatzen jarraitu behar dutela; konfiantza, esfortzua, asmamena, sormena sakrifizio espiritua, hobetzekoa, ekimena... Horiek dira gure identitate ikurrak.

Izaera ekintzaileari esker, Euskadik, bere udalerrri eta lurralde historikoetatik, erkidego aurreratu eta lehiakorra bihurtu da nazioarte mailan. EAJk, tokiko gobernuetatik eta foru gobernuetatik, ekintzailetza indartzearen aldeko hautua egiten du, hausnarketa, sormena eta berrikuntza garatzeko gai diren emakume eta gizonak, euren etorkizun profesionala diseinatzeko eta aldi berean euren erkidegoan lan aukerak sortzeko gai direnak, erakarri eta mantentzeko behar diren baldintzei bidea emateko.

EAJren iritziz, gure enpresa ehunak funtsezko atala izaten jarraitu behar du udalerrri eta lurralde historikoetatik enpresa ekinbide berrien sortzaile moduan, aurrera egin ez gure hazkuntza ekonomikoaren ereduaren aldaketa estrukturalan, jarduera intentsiboak txertatuz ezagutzan, teknologia berrietan eta zerbitzu aurreratuetan, eta kohesioaren alde ekintzailetza ehun lehiakor bat garatuz.

EAJk bere konpromisoa adierazten du, tokiko gobernuetatik eta foru gobernuetatik, ekintzailetzarako mesedegarria izango den ekosistema bat sortzera bideratutako politika publikoak indartzeko, proiektu berrien sortzaile eta ekintzaile diren pertsona, enpresa eta erakundeak erakarri eta mantentzeko baldintza egokiak sustatzeko gai den ekosistema. Nazioarteko nodo nagusiekin konektatutako ingurune bat, pertsona ekintzaileei eta enpresa berriei zientzian, teknologian eta berrikuntzan beharrezkoa den

elkarlan aditua eskainiko diena enpresa proiektu lehiakor berriak martxan jartzea errazteko.

EAJk ekintzailetzari laguntzeko euskal sistema bat finkatzeko hautua egiten du, ideia berritzaileak ekoizkin eta zerbitzu berri bihurtu ahal izatea ziurtatzeko gai den sistema bat, ekoizkin eta zerbitzu horiek hazkuntza eta kalitatezko enpleguak sor ditzaten eta barneko eta kanpoko aldaketa sozialetatik datozkigun erronkei aurre egiten lagundu dezaten.

EAJk konpromisoa hartzen du sormena bultzatzeko ekintzailetzaren oinarrian; sormena berrikuntza teknologiko, zientifiko, artistiko, kultural eta ekonomiko gisa ulertuta. Gizarte aurreratuetan sormena gero eta gehiago gizartean eta sarean eraikitzen da, eta enpresa ehun berria sortzeko iturri bihurtzen da.

EAJren hautua pertsona ekintzaileak babestearen alde, herri erakundeen arteko konpromiso bat da. Ezin da garatu enpresa berriei laguntzeko ekosistema eraginkorrik erakundearteko mailan babes irmoa eta elkarlan egokia izan gabe.

Horretarako beharrezkoa da:

EAJk oinarri teknologiko eta berritzaileko enpresa berriak haztea eta finkatzea nahi du, bereziki Euskadiko RIS3 estrategian zehaztutako espezializazio adimentsuko esparru lehenetsietan, hau da, fabrikazio aurreratuan, energia eta biozientzian eta giza osasunean.

EAJk ekintzailetzaren kultura eta balioak gizartearen maila guztietan sustatu nahi ditu eta bizitzako etapa guztietan, eta barne ekintzailetzari indarra ematen dio enplegua eta jarduera ekonomikoa sortzeko iturri gisa. Euskadiko enpresa bultzagileek enpresa ekinbide berriak garatzeko dauden aukerak identifikatzeko laguntza.

EAJk ekintzailetzaren kultura hezkuntzako ikastetxe guztietan sustatu nahi du.

EAJk enpresa berriak martxan jartzen dituzten emakumeen kopurua ere handitu nahi du, arreta berezia eskainiz enpresa aurreratuak martxan jartzen emakumeek partaidetza handiagoa izatea lortzeari.

NAZIOARTEKOTZEA

EAJren iritziz etorkizun ekonomikoa oinarrizko zutabe biren gainean eraikitzen da, berrikuntza eta nazioartekotzea.

Berrikuntza eta nazioartekotzea estrategia osagarri bi dira EAJren ustez. Ekoizkin eta zerbitzu berritzaileak eskaintzeko gai bagara soilik edukiko dugu arrakasta izateko posibilitatea nazioarteko merkatuetan. Era berean, nazioartekotutako enpresek informazio ahalmen handiagoa dute merkatu berrien beharrei erantzungo dieten ekoizkin berriak garatzeko.

Enpresak nazioartekotzea, bizi dugun mundu globalean, behar bat da. Lehiatzea eta lankide izatea, printzipio bi horiek batera uztartzen diren jokaleku bat. Horregatik, EAJK gure enpresen lankidetzeta eta elkarlan politikak bultzatuko ditu berrikuntza eta nazioartekotze prozesuetan sartzen direla bermatuko duen dimentsio egokia lor dezaten.

EAJren iritziz, esperientziak eta jokaera onak trukatzeko xedez nazioarteko sareak sortu eta horietan parte hartzea ezinbesteko ezagutza iturri bat da. EAJren ikuspegitik, gure enpresak atzerrira irekitzea, mehatxua inola ere ez izateaz gain, aukera bat da enpresa ehunaren lehiakortasuna indartzeko eta negozio aukera berriak detektatzeko. Enpresak nazioartekotzea ekonomiaren susperraldiaren, balio sorkuntzaren eta enplegua sortzearen zerbitzura jarri behar da.

ENPLEGUA ETA LANBIDE HEZIKETA

Azken urteotan Euskadin sortutako hazkuntza ekonomikoari esker, enplegua bizkor hazi da, ohikoa den euskal ekonomiaren hedapen faseetan, eta langabezia modu esanguratsuan gutxitu da.

Hala ere, landunen eta langabeen datuak aurrerapen esanguratsuak erakusten badituzte ere, adierazle guztiak ez dira positiboak. Argi gorrien artean emakumeen eta gazteen egoera nabarmen kaltegarria gailentzen da, eta ekonomiaren susperraldia aldi baterako kontratuen ezegonkortasuna areagotzearekin eta lan ezbeharrekin batera etorri dela. Gainera, langabezia estrukturalaren poltsa esanguratsu bat dago, lan-bilatzailerik helduenengan areagotzen dena. Gainera, zahartzen eta urritzen dabilen lan eskaintzaren aurreikuspenek, langabezia gutxiko jokaleku orokorrean, arrisku bat iragartzen dute, hots, enpresen enplegu-beharrak asetzeko lan eskaintza nahikoa ez izatea.

Gizarte aldaketek eta ekoizpen prozesuekin erlazionatuek, nolahi ere, profil profesionalak eskarira egokitzeta eskatzen du, eskari horrek, epe ertainera beharko diren ahalmenen inguruko ziurgabetasunaren aurrean

egokitu ahal izateko, bai espezializazioa bai zehar kompetentziak eta kompetentzia pertsonalak eskatzen baititu.

Datozen urteetarako jokaleku makroekonomikoez begiz jotzen dituzte ekonomiaren hazkuntza motelagoak eta enplegua sortzen jarraituko duten produktibitateak, nahiz eta astiroago, eta langabe gutxiagorekin.

Errelebo prozesuak, erretiroetatik ordeztuko prozesuak, aurrera jarraituko du, baina ez da automatikoki gertatuko, baizik eta teknologiaren eta jarduera antolakuntzaren eboluzioaren mende geratuko da. Ordezteak ez dira banan banakoak izango ez kompetentzia berdinekoak.



Bestalde, proiektzio demografikoez aurreikusten dutenez, biztanleria potentzialki aktiboa, 20 eta 64 urte bitartean kontzentratzen dena batez ere, etengabe gutxitzen joango da hamarkada honetan geratzen den denboran eta datorren hamarkadan.

Jarduera sektoreka, enplegu sorkuntza garbia, denbora bitarte honetan, zerbitzuetan bakarrik gertatuko da, baina industrian ez dira beteko erretiro guztiak eta eraikuntzan oraingoaren antzeko bolumena mantenduko da.

Azken finean, denak adierazten du urte gutxi barru prest egongo den langile kopurua ez dela nahikoa izango gertatuko den erretiro aldrari eta hazkuntza ekonomikotik datorren enplegu sortu berrietarako beharko den langile kopuruari aurre egiteko; langile falta horrek, enpresen

bideragarritasunari eragiteaz eta euskal ekonomiaren hazkuntza potentziala mugatzeaz gain, gure ongizate estatua iraunkortasuna ere mehatxatzen du.

Konponbidearen parte bat lan merkatuko partaidetza handitzea da (jarduera tasa), baina kanpotik ere talentua erakarri beharko da. Behar den adina pertsona izatea erronka demografiko bat izango da, eta horri gehitu egingo zaio horien kualifikazioa eta konpetentziak enpresek eskatzen dituztenetara egokitzea.

Egokitzapen behar horrek agerian uzten du giza kapitalean inbertsioa handitzearen eta lan merkatuaren beharretara orientatzearen garrantzia, aurrerabide teknologikoetatik eta globalizaziotik datozen erronkei aurre egin behar baitaio.

Sektore lehiakorak edukitzeko strategiaren helburua enplegua finkatzea, sortzea eta areagotzea da, eta bere kalitatea eta kualifikazioa hobetzea, baina industriaren esparruan ez ezik euskal ekonomiaren jarduera sektore guztietan udalerrri eta lurralde guztietan.

EAJren iritziz, enplegua, enplegu politika, tokiko gobernuen eta foru gobernuen jarduera ardatz nagusietako bat da. Beraz, jarduera esparru horietatik lehenetsi egin behar dira enplegu gehiago eta kalitate hobekoa sortzea helburu zuzena duten politika publiko ekonomiko eta sozialak.

Lan bat izatea funtsezkoa da pertsonak gizartean gartzeko, eta lana lortzea eta lanaren kalitatea hezkuntzari eta prestakuntzari zuzenean lotuta daude. Horregatik, EAJk enplegarritasuna eta garapen pertsonala sustatzeko etengabeko ikaskuntzaren hautua egiten du. Pertsona kualifikatuak eta gaituak edukitzea bermerik onena da gero eta aldakorragoa eta zorrotzagoa den lan merkatu batera ondoen egokitzeko.

Arreta berezia merezi du gure gazteak lan merkatuan sartzea, euren gizarteratzea errazteko ez ezik, euren garapen pertsonal eta profesionala ahalbidetuko duen bizi-tza egonkorreko etorkizunari bidea emateko.

Era berean, eta udalerrri eta lurralde guztietan gizarte kohesioa babeste aldera, gizartean egoera ahulenean dauden taldeak lan merkatuan txertatzea bultzatuko duten politika publikoak garatu behar dira.

Azken finean, aldaketa global azeleratu baten unean gaude, eta horrek eskatzen diguna da aurrera egitea eraldaketa garrantzitsuak garatzen, bai emakumeen eta gizonen enplegarritasunaren esparruan bai gure enpresen lehiakortasunaren esparruan. Testuinguru horre-

tan, pertsonen enplegarritasuna hobetzeak, bai epe laburrean bai epe luzean, estrategia berriak bultzatzea eta ahalmen eta konpetentzia profesional berriak eskuratzea eskatuko du. EAJren iritziz, bikaintasunezko lanbide heziketa baten aitzindaritza mantentzeak hezkuntza sistemaren zutabe nagusia izaten jarraituko du.

Gure enpresa ehunaren lehia erronka handiek, eta horiek lortzeko lanbide heziketak jokutzen duen rola, oraingo ereduaren eraldaketa bat eskatzen dute. Emaiza onak lortu ditu eredu horrek, baina eboluzionatu egin behar du. Hiru zutabetan oinarritzen den prestakuntza batean aurrera egiteko oinarriak ezarri ditu; zutabe horiek heziketa, berrikuntza eta ekintzailtza dira.

Aldaketa prozesu horrek, dauzkagun indarguneetatik abiatuta, gure enpresen lehiakortasuna indartzen, pertsonen enplegarritasuna hobetzen eta gizakia gartzeten eta gizartea kohesionatzen lagunduko duen sistema berri baterantz aurrera egiteko moduan eraiki behar da.

Baina, gainera, bizi ditugun aldaketa ekonomiko, sozial eta produktiboek enplegurako behar den kualifikazioa eraldatzea eskatuko dute. Enpresek profil profesional berriak eskatzen dituzte, lehiakortasun globalak planteatzen dituen beharrei erantzun ahal izateko espezializazio maila handia, egokigarritasuna eta kualifikazio handia ezaugarri dituztenak.

Euskadin Lanbide Heziketak garatu duen sistemak bermez eta eraginkortasunez erantzun die gure ekoizpen ehunaren eta gure gizartearen orotariko beharrei, gure ekonomiarako funtsezkoa den sistema gisa finkatu delarik.

EAJk konpromisoa hartzen du lanean jarraitzeko, lanbide heziketa gero eta aurreratuago bat garatzen eta zabaltzen, posibilitate berriak ezartzen, erantzukizun berriak eta helburu berriak, behar desberdinak asetzeko eta oso aldaketa azkarreko egoerak gainditzeko balioko dituztenak, horretarako aurretiaz, malgutasunez eta eraginkortasunez lan eginez etengabeko berrikuntzaren bidez eta bikaintasunaren bidea harturik.

Gainera, EAJren iritziz, enplegurako prestakuntza lana lortzeko aukera gehien dituzten sektoreetarantz orientatu behar da, eta lan merkatuaren joerak aurretiaz begiz jo behar dira, langabeziaren kronifikazioa saihestu behar da berriazko lan aktibazioko neurriak egoera bereziki ahulean dauden edo lan merkatura iristeko zailtasun handienak dituzten taldeei zuzenduz, eta pertsona guztientzako aukera berdintasuna suspertu behar da, bai eta

enpresei ematen zaizkien zerbitzuak euren beharretara lotuago egotea indartu ere.

EAJren iritziz, Hezkuntza sistemaren eta enpresaren arteko lotura hobetuko duten neurriak bultzatu behar dira, atzerriko talentua erakartzeko eta langile zerrendak berritzeko prozesuen plangintza, koerantzukizuna eta lan eta familia bizitzak uztartzea erraztuko duena. Gainera, etengabeko ikaskuntzaren hautua egiten da funtsezko giltzarri delako bai langileen enplegarritasuna bai enpresen lehiakortasun ardatza hobetzeko.

EAJren iritziz, hezkuntzatik enplegurako trantsizioa eta gazteak laneratzea erraztu behar da, sortzen diren enplegu aukerak erraztuz eta itzulitako talentua mantenduz eta bestea erakarriz.

EAJren iritziz, enplegurako prestakuntza sistema oso bat garatu behar da, enpresen beharrei erantzungo diena eta langileen enplegarritasun tresna izateko balioko duena. Hezkuntza sistemarekin eta eragile ekonomiko eta sozialekin elkarlanean eta koordinatuz, langile langabeen enplegarritasunera eta landunen birkualifikazio eta hobekuntza profesionalera begira enplegurako lanbide-heziketa sistema bat ezarriz, eta enplegura iristeko zailtasun maila handia duten pertsonak gizarteratzeko eta lan munduratzeko programa osoei bidea eman.

EAJn, aldi berean, uste dugu balioa eman behar zaio- la eta garatu egin behar dela prestakuntza jarraitua eta etengabeko ikaskuntza, garapen pertsonalerako eta lehiakortasunerako tresna direlako.

Azkenik, eta herri erakundeen artean elkarlanean eta koordinatuta, EAJk enplegua sustatzeko tokiko laguntzak bultzatuko ditu. Laguntzak jarduera ildotan banatzen dira: toki erakundeek enplegua sustatzea, tokiko eremuko enpresen kontratazioari laguntzea eta enpleguaren sorkuntzan eragiten duten garapen lokaleko beste jarduera batzuk.



ELKARRI KONEKTATURIKO HERRI, HIRI ETA LURRALDE IRAUNKOR, ADIMENTSU ETA OSASUNGARRIAK

Klima aldaketako politikak palanka handi bat dira energia iraunkorraren arloan aurrera egiteko. Euskal estratuz gain Europako politikak daude, zenbait jardueratan islatzen direnak, hala nola, berotegi gasen emisio eskubideen merkatuan enpresek parte hartzea, efizientzia energetikoaren zuzentarauak, edo etxean eta enpresan tresnen eta ibilgailuen emisioak eta kontsumoari jartzen zaizkion mugak, horra hor datozen urteetan Euskadin energia kontsumoa murrizten lagunduko duten Europa mailako politiken adibideak.

Jarduera ildo horietan sakondu behar da, Europako zuzentarau horietan esaten den moduan. Maila lokaletako kontsumoetan eragin behar da. Tokiko esparrutik eta foru esparrutik mugikortasun, eraikuntza eta hirigintza ereduetan, merkatuetan eta jokabideetan eragin behar da.

EAJren tokiko gobernuetatik eta foru gobernuetatik politika publikoak garatuko dira Europar Batasunak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko Legean markatutako helburuak jomuga eta konpromiso hartuta, epe ertain eta luzera karbono gutxiko ekonomia baterantz etengabe aldatze aldera.

Baliabide naturalen eta energetikoen iraunkortasuna gaur egun, behar bat ez ezik, politika publikoen lehen-tasun bat da.

Garapen iraunkorreko estrategia batek, bere jarduera ildoan artean, efizientzia energetikoaren bultzada eta energia kontsumoaren murrizketa sartzen ditu, energia berriztagarrien sorkuntza eta erabilera sustatzea eta garraiobide iraunkorrak bultzatzea. I+G+b arloko inbertsioa areagotzea, kontsumo ohitura iraunkorrak garatzea eta hiri iraunkorren garapenean aurrera egitea.

ENERGIA. ENERGIA AURREZTEA ETA EFIZIENTZIA ENERGETIKOA

Energiaren eta erabilera energetikoen arloan, azken urteotan efizientzia energetikoen arloan eta emisio kutsagarrien murrizketan aurrerapen handiak izan ditugula nabarmendu dezakegu, batez ere euskal industrian eta argindar sorkuntzan sartutako aldaketa teknologikoei esker, baina eraikin eta etxebizitzaren iraunkortasunean eta hondakinen kudeaketan hobekuntzak egin direlako ere bai.

Badirudi lotura galtzen ari dela jarduera ekonomikoaren, energia kontsumoaren eta ingurumena hondatzearen artean, baina datozen urteetan egiaztatu beharko da.

Zintzilik dagoen irakasgaia oraindik ere garraioan petrolioaren eratorrien kontsumoa murriztea da, sektore hori baita energiaren lehen kontsumitzailea eta behar-bada datozen urteotan kutsatzaileena izatera irits daiteke, egoera hori konpentsatzeko behar diren neurriak martxan jartzen ez badira.

Energia / klima aldaketa binomioa eredu energetikoa aldatzeaz eta karbono gutxiko ekonomia baterantz aurrera egitearekin duen harremanaz ari da, klima aldaketaren desafio globalaren ildotik, energia ulertu eta erabiltzeko modu berri bat, bere eraginak moteltzeko neurriak hartzea eta hiri mugikortasun eta biziberritzean arreta berezia jartzea eskatuko baititu.

Europako helburuen ildoan, EAJn eraldaketa energetikoaren prozesuan aurrera egitea proposatzen dugu efizientzia energetikoa sustatuz eta sare adimentsuak, energia berriztagarrien ezarpena, energia biltegitratzeko irtenbideak eta abangoardiako energia industria bultzatuz.

Azken batean, EAJren ikuspegitik, gure kapital naturala babestu, kontserbatu eta lehengoratztea da kontua, ekosistemek ematen dizkiguten zerbitzuak jagonda. Karbono gutxikoa eta baliabideen erabilera efizientea den ekonomia baterantz aurrera egitea da kontua. Azken batean, gure herritarren osasuna eta ongizatea suspertu eta babestu nahi dugu.



Administrazio publikoek euren rol eredu-emailea bete behar dute gizarteari begira. Horregatik, EAJk, tokiko gobernuetatik eta foru gobernuetatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legean hartutako konpromisoak betetzea bultzatuko du, besteak beste: aldundiek eta udalek jarduera plan energetikoak landuko dituztela; gainera, herri administrazioek % 35eko energia aurrezpena eduki beharko dutela 2030erako eta % 60koa 2050erako; herri administrazioek energia erosteko egiten dituzten lizitazioen emaitzak iturri berriztagarrien % 100eko eskurapena izan beharko duela, eta herri administrazio bakoitzean, oro har, 2030ean, administrazio horren kontsumoaren % 32 hornitzeko behar dituen energia berriztagarriaren instalazioak eduki beharko dituztela euren eraikinek.

EAJk, tokiko gobernuetatik eta foru gobernuetatik, energia eskaria aldatzea bultzatuko du energia aurrezte eta efizientzia energetikoa suspertuz eta gizartean, udalerrietan eta lurraldeetan energia aurreztearen eta efizientzia energetikoaren kultura zabalduz, faktura elektrikoak behera egitea eta berotegi gasen emisioa gutxitzea lortzeko.

EAJk enpresen elkarlana eta enpresen partaidetza bateratua Europako ikerketa proiektu energetikoetan areagotzea proposatzen du. Efizientzia energetikoaren, birgaitze energetikoaren, energia biltegitratzearen eta itsas energien esparruetako ikerketa proiektuak.

EAJk, bera dagoen herri erakundeetatik eta bere ardura arloetan, bidea emango dio garraioa mailaz maila karbonogabetzeari argindarrezko mugikortasuna sustatzeko programekin eta energia biltegitratzearen, erregai alternatiboaren birkargaren eta eskari kudeaketaren arloan enpresa berriak agertzea indartuz.

EAJren hautua energia berriztagarrien eta argindar soruntza dibertsifikatzearen sustapena da, ekonomia zirkularraren eta ekodiseinuaren bitartez ekoizpen prozesuetan materialak eta energia efizientziaz aprobetxatzea pizgarritz hornituz.

INGURUMEN ERANTZUKIZUNA

EAJn uste dugu udalerrri eta lurralde oparo moderno eta aurreratuak artikulatzea gure baliabide naturalak babestuz eta errespetatuz baino ezin egin daitekeela.

EAJren iritziz, ingurumena errespetatzea gizartearekiko konpromiso moduan ulertu behar da, gardentasunean,

berdintasunean eta partaidetzan oinarritua, emaitzetara orientatuta eta kontu ematea, sinplifikazioa eta udal eta foru politiken multzoaren koherentzia oinarri dituela.

Herri, hiri eta lurraldeek ingurumen osasungarriaz gozaten duen herritarrak dituzte, ingurumen horrekin konprometiturik eta harro dauden herritarrak. Lurralde berdeak eta ekonomia berde bat, oinarri industrialekoa, lehiakorra eta berritzailea artikulatzearen emaitza da.

EAJn uste dugu ingurumen iraunkortasuneranzko trantsizioak aldaketa handiak eskatuko ditu energia politikan, garraio sisteman, nekazaritza eta abeltzaintza eremuan, gure lurraldeen hiri eraketako dinamiketan, gure industriek ekoizten duten moduan, familiek hondakinak kudeatzen jartzen duten arretan, ur eta energia kontsumoan eta pertsonen ondasun eta zerbitzuak erosteko egunero hartzen dituzten erabakietan.

EAJk ingurumena osasun publikoaren baldintza gisa eta bihar-etziko belaunaldiekiko konpromiso gisa ulertzen dugu. Garapen iraunkorrak oraingo belaunaldiek etorkizuneko belaunaldiekin izan behar duen konpromisoa dakar, ardurak norbereganzetik sortzen da, ondare naturala, paisaiak, lurraldeak eta ingurumena errespetatu, babestu eta zaintzeko erabakia hartuz.

EAJk tokiko gobernuetatik eta foru gobernuetatik eremu degradatuak erabilerak, lehengoratzea eta berrerabiltzea konbinatzea bultzatuko du, horrela ekosistemen eta horien zerbitzuen galerak mugatzeko.

EAJk lurralde antolamendu adimentsua bultzatuko du, biztanle dentsitate handiagoak hobetsiko dituen eta erabileren konbinazioa indartuko duena, lurzoruen berrerabilpena eta lehengoratzea pizgarritz hornituz.

EAJk ur hornikuntza eta saneamenduko azpiegitura sareak hobetu eta burutzea bultzatuko du.

EAJk teknologia garbiak erabiltzeari eta eskura dauden ingurumen teknologiarik onenak erabiltzeari bultzada emango dio.

EAJk ekonomia berdearen alde egiten du, gizarteak baliabideak modu efizientean erabiltzen dituen ekonomia baten alde, giza ongizatea gizarte barne-hartzaile batean hobetuz eta aldi berean sostengatzen gaituzten sistema naturalak kontserbatuz. Ildo horretan, EAJk ekintzailtza eta enplegu berdea babestuko ditu eta ekosistemen eta ekonomia berdearen esparruan ikerketa eta berrikuntza bultzatuko ditu.

EAJk ekonomia zirkularren hautua egiten du, sortzen dituen galerak minimora murrizten dituen ekoizpen eta kontsumo sistema bat. Ekonomia linealetik ekonomia zirkular baterantz igaro behar da, eragiten dituen galerak minimora murrizten dituen ekoizpen eta kontsumo batera alegia.

Ekonomia zirkularra aldaketa bat da baliabide naturalak erabiltzeko moduan eta, ondorioz, ingurumenarekin ditugun harremanetan. Eredu zirkular berrian produktu eta materialen balioa ahalik eta denbora gehien mantentzen da; hondakinak gutxienekora murrizten dira, eta baliabideak berriro sartzten dira behin eta berriro ekoizpen zikloan, eta balioa sortzen dute ondasunak euren bizitza baliagarriaren amaierara heltzen direnean. «Murriztu, bererabili eta birziklatu». Gutxiagorekin gehiago lortzea da ekonomia zirkularren oinarritzko printzipioa.

Ekonomia zirkularren estrategia bat, ekodiseinua edo ekoberrikuntza garatuko dituena edo, beste ekoizpen ziklo batzuetako lehengai izateko, azpiekoizkinak edo hondakinak berriro sartuko dituena. Bereziki, giltzarri diren sektoreetarako efizientzia neurriak, esate baterako, eraikuntza, nekazaritzako elikadura, turismoa, bilgarriak, enbalajea, ehungintza, fabrikazio elektrikoa eta elektronikoa eta abar.

Azken batean, EAJk ingurumen iraunkortasunerako hezikuntza eta kontzientziazioa bultzatuko ditu.

LURRALDE OREKATU ETA IRAUNKORRAK

EAJren proposamena datozen urteetarako, udal eta lurralde bikain, iraunkor, adimentsu, orekatu, elkarlotu eta partaidetzazkoetarantz aurrera jarraitzea da. EAJk bikaintasunezko lurraldeen hautua egiten du bizitzeko, hiri eta herri adimentsu eta iraunkorrek osatuak, berrikuntza enpresen lehiakortasunerako eta gizartearen bizitza kalitateerako funtsezko faktore izango dituzten lurraldeak.

EAJk, tokiko eta foru gobernuetatik, politika publikoen eredu berri bat garatuko du, udalak eta lurraldeak lurralde erakargarri, berritzaile eta sortzaile, adimentsu eta bereziak bihurtzera zuzendutakoak, nortasun propioa dutenak, sareko lana bultzatzen duten eta nazioartean identitate propioa duten politika malguago eta partaidetsuagoak dituztenak, arreta berezia eskaintzen diotenak munduko nodo nagusiekiko konexioei elkarlan fluxu biziak eta ezagutza trukatzuz.

Digitalizazioaren erronkak lurralde adimentsu eta kohezionatuak lortzea eskatzen du, garapen honetarako behar diren azpiegitura teknologikoekin erlazionaturako erronkak eskuetan hartzen dituztenak, horrela balio erantsi handiko zerbitzuak garatu ahal izateko hiriguneetan eta landaguneetan, modu horretara lurraldeen kohezio handiagoa ziurtatuz.

Azpiegitura berdeek naturaguneak lurralde multzoaren oinarritzko parte gisa ulertzea eskatzen dute, eta ekosiste-



mek gizarteari eman diezazkioketen zerbitzuak aprobetxatuko dituzten eta balioa emango dieten eraikuntza teknikak erabiltzea ere bai. Adibidez, uraren kudeaketa hobea eta herrietan eta hirietan beroguneak saihesteko eta berotegi gasak xurgatzeko landaredia erabiltzea aipa daitezke.

Lurralde ereduak eta lurralde ekinbideek garrantzi handia dute garapen iraunkorra lortzeko. Horrela, hazkuntzari garrantzia ematearen aurrez aurre, hiriguneen dentsitatea berreskuratu behar da eta gune eraikien hedapen prozesuak mugatu behar dira.

Lurralde antolamendua beste politika batzuekin koordinatu beharra, energia politikarekin adibidez, lurralde antolamenduak hiri eremuan duen eraginetik dator eta, beraz, egoitza edo garraio sektoreetan eta kidekoetan energiaren kontsumoan duen eraginetik.

Hiriaren forma edo zenbait erabileraren lokalizazioa funtsezkoak gertatzen dira joan-etorri motordunen beharra murrizteko eta garraio kolektiboko sistemei bidea emateko. Ildo horretan, EAJk garapen ardatz linealak indartzea proposatzen du, garraio publikoko zerbitzuen jarduera eta erabilera interesgarri egingo dituztenak eta hiri egitura eraginkorrago eta trinkoagoa ekarriko duena, polizentrismoan oinarritua, joan-etorrien beharra gutxitzeko. Oinezkoen eta bizikleten sarea hedatzea ere funtsezkoa da mugikortasun beharra gutxitzeko.

Hiri eta arkitektura diseinuko printzipio bioklimatikoak garapen berrietan sartzeko ere beharrezkoa da. Horrela eguzki eta haize energia etxeko eta hirugarren sektoreko hornidurarako hartzearen garrantzia agerian geratzen da, berotegi gasen emisioak gutxitzeko tresna bat delako.

Dauden eraikinen eta espazio urbanizatuen efizientzia energetikoa hobetzeko programak txertatzea, energia kontsumoa minimizatzeko irizpide bioklimatikoak erabiltzeko eskakizuna egitea, eraikinetan eta hiriko espazioetan landareak erabiltzea, eraikinen eta orotariko instalazioen energia-autohorniketa sistemen erabilerari bidea ematea eta efizientzia energetikoa eta argindar kontsumo apala bilatuz sistemaren benetako aldaketa bat egitea proposatzen du EAJk lurralde antolamendua- ren gidalerroen irizpideetan.

Hiri antolamenduko plan orokorren bitartez esparru lokalean energiaren kontsumoan eragin handia duten elementuak erabakitzen dira, hala nola eraikinen garaiera, bizileku dentsitatea, aparkalekuak eta garraio azpiegiturak. Kaleko argietan ere diseinu eta aurrezte irizpideak

ezartzen dira, izan ere toki administrazioen energia kontsumoaren parte handia bat.

EAJ dagoen tokiko gobernuetatik eta foru gobernuetatik, eta EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean ezarritakoaren arabera, lege hori indarrean hasten denetik urtebetetera, eraikinen, ibilgailuen eta kaleko argien inbentario bat egingo da. Era berean, lurraldea antolatzekeo tresnek iraunkortasun energetikoaren azterketa bat eduki beharko dute, iraunkortasun energetikoaren ebaluazio bat, eraikinetan eta azpiegiturretan energia berriztagarrien ebaluazio bat, mugikortasun azterketak eta argikuntza publikoaren azterketa bat jasoko dituenak. Gainera, hirigintza tresnek ibilgailu elektrikoetarako birkarga estazioak aurreikusi beharko dituzte.

Udalek ere eskumen zabalak dituzte mugikortasun arloan, eta EAJk indartu egingo ditu. Ibilgailuak sartzeko mugak, zirkulazio bareko eremuak, aparkaleku politika edo bizikleta bideak edukitzea udal erabakiak dira eta mugikortasuneko energia kontsumoari eragiten diote.

EAJk garraio publikoko zerbitzu efiziente eta iraunkorrak eta hiri egitura eraginkor eta trinkotuak indartuko ditu, joan-etorrien beharra gutxitzeko, eta, gainera, energia alternatiboko garraio sistemak sustatuko ditu petroliotik eratoritzen direnen aldean.

EAJk bidea emango dio orotariko eraikinen energia autohorniketari, eguzki indarra aprobetxatzeko sistemak, haize sorgailu minieolikoak, aerotermia, geotermia, biomasa eta abar baliatuz, alde batetik berriztagarrien sortze elektriko eta termikoa aprobetxatzeko irtenbideak eta bestetik energia autokontsumoko sistemen erabilera lehenetsiz.

Udal plangintzak eta dagozkien ekintza sektorialek linea elektrikoaren antolamenduan zenbait iraunkortasun irizpide kontuan hartzen dituztela jagongo du EAJk, esate baterako, mantentzeko inauseak, sistema ignifugoak, lineako euskarriak, garraio linea berrien linea alternatibo berrien trazatuetako eskakizunak eta abar.

EAJren iritziz, azpiegitura berdeak eta argindarra bezalako energia berriztagarrien erabilera edo eraikinetako efizientzia energetikoa funtsezko kontuak dira gure udalerriek eta lurraldeek klima aldaketaren eta Parisiko gailurrean hartutako konpromisoaren aurrean hartzen duten posizioarako.

EAJn konpromisoa hartzen dugu udalerriak eta lurraldeak ingurune degradatuak ahalik eta gehien gutxituko diren ingurune sozialak izan daitezen, bai hirialdean bai landagunean hiriberritzearen eta bizitza kalitatearen

hautua egin dadin eta une oro kontuan har daitezen pertsonak, euren adina, irisgarritasuna, jatorria, generoa, etxebizitzak, hezkuntza eta euren sorospen zerbitzuak.

EAJn gure udalerrriak eta lurraldeak gizartez eta lurraldez orekatuak diren eremuak izatea nahi dugu, eremu batzuen hustuketa prozesuak eta biztanle lekualdatze nabarmenak saihestuko dituztenak.

Gainera, EAJn, tokiko gobernuetatik eta foru gobernuetatik, gure lurraldeek lehen mailako konektagarritasuna izan dezaten konprometitzen gara, bai barrukoa bai kanpukoa eta bai bide azpiegituri dagokienez bai konexio digitalei dagokienez. Gure udalerrri eta lurraldeak elkarri lotuta egon daitezen egingo dugu lan, bai Europako ardatzetan bai barruan elkarri lotuta.

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

Garraio azpiegiturak oinarrizkoak dira hazkuntza ekonomikorako, bizitza kalitatea hobetzeko eta lurraldea egituratzeko, eta zeharo laguntzen dute enpresen lehiakortasuna hobetzen eta garapen iraunkorrago egiten.

Garraioa funtsezko elementu bat da sektore ekonomikoak garatzeko (lehen, bigarren eta hirugarren sektoreak) eta udalerrien eta lurraldeen aurrerabiderako.

EAJk energia aurreztuko duen eta berotegi gasen emisioak, bai eta pertsonen osasunean eragiten duten beste batzuk ere, minimizatuko dituen garraio eredu iraunkor eta efiziente baterantz eboluzionatu beharra aldeztu du.

EAJn pertsonen mugikortasun fisiko eta profesionalaren beharrei erantzunik onenak garatzearen hautua egiten dugu, udalerrri eta lurraldeetan lan merkatu zabalago bat garatzeari bidea emango dioten erantzunak eta ingurumen inpaktu minimoarekin kultura, osasun, hezkuntza eta bestelako interesguneetara iristea erraztuko dutenak, mugikortasun iraunkorrek, kostu gutxiagorekin eta modu fidagarriago eta seguruago batean.

EAJn garraio sistemak integraztearen hautua egiten dugu, garraiorako baliabide ekonomikoak, baliabide materialak eta giza baliabideak efizienteak izatea bilatuz. Ildo horretan, garraioaren elektrifikazioak haren iraunkortasunari eta, ondorioz, baliabide publiko nahiz pribatuak aurrezteari laguntzen dio eta zuzenean eragiten du udalerrien eta lurraldeen garapen iraunkorren.

EAJk garapen ekonomiko iraunkorra bultzatzen jarrai-

tuko du, administrazioetatik, enpresetatik eta gizartetik koordinatutako garraioaren plangintza eta antolamenduaren bidez. Era berean, garraio sistema berritzaile eta aurreratu bat sustatuko du.

EAJk garraio publiko iraunkorra bultzatzeko konpromisoa hartzen du, mailaz maila erregai alternatiboak erabiltzera joz eta irisgarritasuna bermatuz lurralde plangintza iraunkor batekin koordinatuta.

Ekintza ildo horretan, administrazio publikoek instalazioak, tresnak, flotak eta ibilgailuak berritzeko EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak ematen dituen aginduek ezartzen dutenez, 2020an, erosten diren ibilgailu publikoen % 100 erregai alternatiboek izango dira eta birkarga puntuak egongo dira; zerbitzu publikoko ibilgailuek 2020an erregai alternatiboak erabili beharko dituzte; udalerriek udal lurraldeko gune batzuetan sartzea debekatu edo mugatu ahal izango diete erregai alternatiboak erabiltzen ez dituzten ibilgailuei edo darabilten teknologia edo propulzioagatik emisio maila jakin batzuk gaintzen dituztenei, eta, gainera, oinezkoen alderdiak eta bidegorriak pribilegiatu beharko dituzte ibilgailu motordunen zirkulaziorako erreserbatutako espazioen gainetik.

EAJren iritziz, mugikortasuna berebiziko garrantzia duen elementu bat da, energiaren ikuspegitik efizienteenak eta kutsadura gutxiena dutenak diren alternatiben eta aukeren aldeko hautua eginez ingurune naturala zaintzea eta ingurumen kalitatea hobetzea helburu hartuta. Horretarako, ildo estrategiko hauek ikusten dira: bidaiarien mugikortasun sistema integratu bat lortzea tren erreferentzia izanik, sistema logistiko integratu bat sustatzea salgaien eskualdearteko banaketa sustatzeko, garraio modu iraunkoragoak indartzea eta autoa banaka erabiltzeko ideia burutik kentzea, laguntzak emanez, bestalde, efizientziaz erabiltzeari eta energia iturri iraunkorrenei, eta mugikortasunaren gobernantza bultzatzea. Ibilgailu elektriko eta hibrido entxufagarrietarako birkarga puntuak instalatzeari mailaz maila bidea ematea. Era berean, ziklagarritasuna ezarri behar da bai eguneroko joan-etorrietarako bai aisiarako, bizikleta garraio bide moduan sarraraztea helburu dugula, okupazio txikiko ibilgailuarekin lehiari eta beste garraio modu batzuen ordezko gisa.

EAJren ikuspegitik, mugikortasun planek udalerrien eta lurraldeen mugikortasun iraunkorren estrategiak osatu behar dituzte eta zirkulazioari, aparkatzeari, oinezkoen joan-etorriei, bizikletei, ibilgailua konpartitzeari, garraio publikoaren sareari eta salgai banaketari buruzko mugikortasun

kortasun eredu zehaztu behar dute, energia kontsumo txikiagoa eta berotegi gasen emisio murrizketa eragingo duen mugikortasun eraginkor, efiziente eta iraunkor bat lortzeko.

EAJk, tokiko gobernuetatik eta foru gobernuetatik, eta EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legean ezarritakoaren arabera, hiriko eta hiriarteko mugikortasun iraunkorreko planak hiri plangintzan txertatuta garatzea bultzatuko du.

Lurralde eta hirigintza ereduak mugikortasunaren eta garraioaren gainean izango duen eraginaz diagnostiko bat egitea, udalerrian dauden garraio eredu guztiak eta energiaren erabileran duten eragina kontuan hartuko dituzten hiri mugikortasuneko planak.

Hiri mugikortasuneko planek kontuan hartu behar dituzte jendearentzat eskuragai izango diren erregai alternatiboez hornitzeko eta birkargatzeko puntuen instalazioa, garraio publikoaren pizgarriak, erabilera partekatuko ibilgailuak sustatzea, garraio pribatua mailaz maila gutxitzeko alternatibak, salgai banaketarako logistikaren hobekuntza, bizikleten erabileraren sustapena eta, oro har, motorrik gabeko joan-etorriena, oinezkoak bakarrik erabiltzeko eremu berrien ezarpena, erregai alternatiboak erabiltzen dituzten ibilgailuen erabileraren sustapena eta antzeko neurriak.

Plana eta hura idazteko behar diren azterlana gizonek eta emakumeek hiriaz eta espazioaz egiten dituzten erabilera guztiak kontuan hartuta idatziko dira, eta izan litezkeen genero arrakalak gutxitzeko proposamenak jasoko dituzte hiri integratzaile eta koerantzule bat diseinatzera aurrera egiteko xedez.

ZAHARBERRITZEA ETA HIRIBERRITZEA

Euskadik antzinako eraikinak ditu, eta, izan ere, dauden eraikinen ia erdiak 1961 baino lehen eraikitakoak dira. Antzinakoa izateak dakartzan kontserbazio eta mantentze arazoei irisgarritasun, bizigarritasun eta, efizientzia energetikoari dagokionez, iraunkortasun falta gehitzen zaienez, zaharberritzeko esku hartze sakonak eta oso esanguratsuak behar dituzte datozen urteetarako.

Horregatik, EAJk uste du beharrezkoa dela hiri eraikiari balioa ematea, bereziki iraunkortasuna eta energia aurrezteko hobetzeko helburuz.

EAJk, tokiko gobernuetatik eta foru gobernuetatik, zahar-

berritze iraunkorraren eredu berri bat bultzatuko du, jarduera ildoan artean eraikinak kontserbatu eta mantentzen laguntzea, zaharberritzearen kudeaketa eredu global berri bat suspertzea, enpleguari bultzada emateko zaharberritzearekin erlazionatutako modu berriak sustatzea eta etxebizitzaren kalitatea indartzea kontuan hartzen dituen.

Ildo horietako ekintzetan, garatu beharreko jarduera konkretuak daude, esate baterako, eraikinen ikuskapen teknikoak egiteari bultzada ematea, energia kontsumo handiko eraikinetan esku hartuz karbono gutxiko ekonomiara aurrerapauso bat egitea, hiriberritzea bultzatzea, zaharberritzeko pizgarriak eskaintzea, laguntza programak sinplifikatzea eta zaharberritzeko hiri elkarten rola indartzea.

Bizileku diren eraikinetako eta zerbitzu sektoreko energia kontsumoak gero eta garrantzi handiagoa izan du Euskadin, gero eta eraikin gehiago dagoelako eta energia kontsumitzen duen tresneria gehiago erabiliz erosotasun maila handiagoa dagoelako. Etxebizitzaren energia kontsumoa eraikinetako kontsumoaren % 56 da, berogailuaren erabilera nagusi dela, guztiaren ia erdia baita. Ur bero sanitarioak, etxeko tresneria elektrikoak, sukaldeak eta argiak banatzen dute gainerakoa.

Europako zenbait arauk energia aurrezteko eta efizientzia energetikorako neurriak bultzatzen dituzte. Era berean, EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak konpromiso garrantzitsuak dauzka.

EAJk, jarduera ildo hauetan, konpromisoa hartzen du, tokiko gobernuetatik eta foru gobernuetatik, dauden eraikin publikoen kalifikazio energetikoa egiteko eta eraikuntza berriko eraikin publikoen kalifikazio energetikoa energia kontsumorik ia batere gabekoa lortzeko. Halaber, urtebeteko epean administrazio publikoaren eraikin guztiek izango dituzte energia kontagailuak eta energia auditoretzak egingo dira.

Gainera, eta Europaren gidalero hauen eta arloko euskal legediaren ildotik, EAJk, bera dagoen tokiko gobernuetatik eta foru gobernuetatik, eta eraikinen energia erabilera efizientzia hobetzea eta energia berrietagarrien erabilera handiagoa bultzatzea helburu hartuta, eraikinetako auditoretzak eta diagnostikoak sustatuko ditu, inguratzaile termikoaren zaharberritzea eta etxebizitzaren kalifikazio energetikoaren hobekuntza suspertuko ditu, energia kontsumitzen duten tresnak beste efizienteago batzuetara aldatzea bultzatuko du eta eraikinetan energia berrietagarriak ezartzea indartuko du.

EAJk arlo honetan duen konpromisoetako bat lehen-tasunez jardutea da zaharberritzea eta hiriberritzea eta eraikingintza iraunkorra bultzatzen udalerrri eta lurralde historiko guztietan.

Hiri birgaikuntza berrindartu behar da enplegu sorkuntzako eta gizarte kohesioko estrategia indartzea helburu izanik, birgaikuntza iraunkor eta integratzailea eginez, eraikinen eta etxebizitzaren kontserbazioa, irisgarritasun unibertsala eta efizientzia energetikoa sustatuko dituena.

EAJn uste dugu, halaber, funtsezkoa dela hirigune degradatuak eta egoera ahulean dauden egoitza aldeak berreskuratzera zuzendutako jarduerak babestea, hirigintza ikuspegitik ez ezik gizarte ikuspegitik ere bai. Horretarako ezinbestekoa da herri erakundeen arteko elkarlana.

Era berean, etxebizitza duin, egoki eta irisgarri bat ezin eduki dezaketen pertsonen alokairu sozialeko politiken bidez hura izatera iristeko erraztasunak ematea da EAJren konpromisoa.

OSASUNA

Pertsonen osasun maila funtsean zenbait faktorek baldintzatzen dute, hots, biologiak edo herentzia genetikokoak; ingurumen fisiko eta sozialak (kutsadura, pobrezia...), bizitza estiloa (elikadura, ariketa fisiko...) eta osasun laguntzako sistemak (estaldura, kalitatea...).

Azken hamarkadetan herritarren aldetik aldaketa bat gertatzen ari dela ikusten ari gara, gero eta informatuago eta arduratsuagoak baitira euren osasunaren gainean, baina euren sistema soziosanitarioak ematen dituen zerbitzuei ere gehiago eskatzen diete. Prebentzioari eta osasuna zaintzeari nagusitasuna ematen dion mugimendu berri baten aurrean gaude.

Euskal biztanleriaren osasun egoeraren ezaugarria da bizitzeko esperantza azken hamarkadetan zeharo hobetu dela eta munduko altuenetan kokatu dela, bereziki emakumeen kasuan.

Baina biztanleen osasun egoera deskribatzeko, zahartzaroren hobekuntza etengabea osasun maila hobearekin datorren ala, aitzitik, erikortasun edo desgaitasun handiagoaren kontura ote den jakin behar da.

Osasun egoera ez da berdin banatzen biztanlerian, osasun-adierazle okerragoak baitaude egoera ahulenean dauden maila sozioekonomikoetan. Gainera, osasunean

gizarte desberdintasunek izaera graduala ageri dute, ez diete soilik eragiten gizarte eskalan behealdean dauden pertsonen, baizik eta gizarte guztia zeharkatzen dute.

Osasunaren arlotik, osasunean gizarte eta genero desberdintasun gutxiago izateko, konplexutasun gutxiena duen eta etxetik hurbilen dagoen mailan sorospena indartu behar da, ahal dela.

EAJren iritiz, eta tokiko gobernuetatik eta foru gobernuetatik, osasunean eta osasunaren ekitate gabezia eragiten duten baldintzatzaile estrukturalen gainean ekingo duten politika publikoak garatu behar dira, eta baldintzatzaile horiek gizarte babesa, hezkuntza, etxebizitza duina, garraio aktiboa, inklusiozko hirigintza, enplegu duina, elikadura osasungarria, zahartze aktiboko ekintzak, adineko pertsonen adiskidetsuak diren hirien programak, arreta goiztiarreko programak eta abar dira. Programa eta ekintza horiek herri erakundeen maila guztietatik koordinatu behar dira.

EAJn osasuna ondasun indibidualtzat daukagu, baina zaindu eta babestu beharreko ondare komun bat ere bada. Osasuna hobetzea erakunde guztiek partekatzen duten helburu bat izan behar du, horrela guztien ekintza itunduak herritarren osasuna hobetzen eta ongizatea handitzen lagundu dezan.

EAJtik konpromisoa hartzen dugu esparru guztietatik lan egingo dugula osasunaren kulturari, bereziki suspertzen eta prebentzioan eraginez. Bizitza estilo, balio eta ohitura osasungarriak sustatzen jarraitu beharra dago.

EAJn lehen-tasuna ematen diogu osasun sare lokalen sorrera bultzatzeari. Sinetsita gaude osasun sistemak aldatu behar direla eta komunitatearen bitartez osasuna sustatzera orientatu behar direla.



› KOMUNITATEA, IDENTITATEA, ELKARBIZITZA, BERDINTASUNA, ELKARTASUNA

Eboluzio demografikoa Euskadiren orainerako eta etorki-zunerako gairik kritikoenetako bat bilakatzen ari da. Euro-pak ere badu erronka hau, bere biztanleria mailaz maila zahartzen ari baita, alda baterako fenomeno biren emaitza gisa: zahartzaroa luzatzea eta belaunaldi gazteak murrizta-goak izatea, ordezen mailatik urrun dagoen ugalkortasunagatik. Biztanleriaren joera hau biziagoa da Euskadin, eta ondorio ekonomiko eta sozial garrantzitsuak ditu, politika publikoetan nabarmen eragiten dutenak.

Gainetik azalduta, epe ertainera aurreikusitako dinamika demografikoak eskola adineko biztanleriaren beherako joera ageri du, eta jaiotza tasaren beheraldiak hezkuntza etapa guztietan eragingo du denboran atzeratuta, biztanleria potentzialki aktiboa gero eta gehiago gutxitzea eta zahartzea ere eragingo du eta adineko biztanleak askoz gehiago izango dira, eta gehiegi zahartzeko prozesua areagotu egingo da.

Honelako prozesuen aurrean, politika publiko ekonomiko eta sozialetatik harago, EAJren tokiko gobernuen eta foru gobernuen erronka herri, hiri eta lurralde bakoitzean komunitatea egiten jarraitzea da, komunitate horiek osatzen dituzten pertsona guztiekin eta bakoitzarekin balioetako elkarbizitza bultzatuz, gizarte kohesioa bultzatuz eta herri, hiri eta lurralde bakoitzean integrazioari, kohe-sioari eta komunitate garapenari bidea emango dion ki-detasun zentzua pertsona guztiengan sorraraziz.

KULTURA

Zer garen ulertzeko behar dugun denon balio eta ideia multzo bat da kultura. Beste kultura eta gizarte batzuen kontaktuarekin etengabe aldatzen denez, funtsezko elementu bat da herri baten identitate kolektiboa garatzeko eta babestu eta indartu behar da.

Euskalduna bezalako komunitate batek, udalerrri eta lurralde guztietatik, gutxituta egon arren biziberritzeko ahalmen frogatu eta eredugarria duen hizkuntza propioa duenak, sustraietatik beretatik mundura irekita dagoen kultura berezia duenak, beste kulturekiko elkartasun eta elkarbizitza bokazioa duenak, zaindu egin behar du bere errelato propioak sortzeko ahalmena, kontu estrategikoa baita, eta bere identitate kulturala elkarbizitzaren, errespetuaren eta gizarte kohesioaren eredu gisa etengabe lantzeko ahalmena. Azken batean, elkarbizitza eredu bat izateko.

Euskal gizartean erreferentzia, sinbolo eta ohitura kulturalak partekatzen ikastea da erronka; globalizazioak

handitu egiten du eta zentzu berekiz hornitzen du elkarbizitza, komunitate bizitzan etengabe ikasteko prozesu modura ulertuta. EAJn kulturaren bizi-indarra, ekonomiaren garapena, elkartasuna, ingurumenaren iraunkortasuna eta ezagutza balio demokratikoak finkatzeko zutabe gisa ulertzen ditugu, eta kulturak funtsezko rola du.

Kultura, EAJren ikuspegitik, prozesu bat da, harreman esparru bat, identitate pertsonal eta kolektiboa ezagutzea da, sormena, zabalkundea eta ondarearen eta balioen transmisioa da.

EAJn kultura eta politika kulturala gizarte kohesioa eta herritarraren, banakoaren eta komunitatearen balioak eraikitzeko tresnatzat hartzen dugu; tradizionalaren eta berriaren arteko, norberarenaren eta unibertsalaren arteko elkarbizitza emankorrerako tartetzat. Komunitate sen honek gure oroimenean errotuta dagoen eta, aldi berean, balio eta jokaera kulturalik moderno eta aurreratuenekin elkarrekintza etengabe dagoen euskal kultura baten garapena bultzatzea eskatzen digu, oraina eraikitzen eta etorkizuna prestatzen.

EUSKARA

Euskara euskaldunon hizkuntza propioa da, ez daukagun hizkuntza bakarra delako, geuk bakarrik daukagulako bai-zik, eta naturaltasunez bizi da beste hizkuntza batzuekin.

Euskara hizkuntza propio bat da, eta, halakoa denez, identitate faktore eta komunikazio tresna da. Hizkuntzak ez dira baztertzailak, euskara ere ez. Aniztasuna, plural-tasuna, osagarritasuna eta integrazioa dira euskara ondoen bereizten duten terminoak.

Hiztunik gabe ez dago hizkuntzarik. Hitzunak dira hizkuntzei nabaritasuna ematen dietenak. Euskararen iraupena eta bizi-indarra, azken finean, hitzunek hizkuntzaz egiten duten erabileraren mendean dago. Gizarte bizitzan ohiko erabilerako hizkuntza moduan indarra eman nahi diogu euskarari, gero eta pertsona gehiagok erabil dezaten komunikatzeko, ikasteko eta denona izateko.

EAJn hizkuntzaren kontua Euskadiko udalerrrien eta lurraldeen gizarte eraikuntzaren hezur eta mami dela uste dugu. Udalerrriak eta lurraldeak munduari eta beste hizkuntzei irekita daude geure hizkuntza indartzetik abiatuta. Udalerrriak eta lurraldeak hizkuntzaren kontuan ere askotarikoak eta pluralak dira, eta ekintza positiboko politika publikoak garatzen jarraitu behar dute euskara

erabiltzeko aukerak eta esparrua hedatzeko, eta herritar guztiei hizkuntza eskubideen benetako berdintasuna mailaz maila bermatzeko. Azken batean, benetako berdintasun eraginkorra ahalbidetuko duten politikak, hizkuntzen berdintasunezko bizikidetzaren harmoniatsua baten giroan.

INKLUSIOZKO ETA BIKAINTRASUNEZKO HEZKUNTZA

Hezkuntzak pentsamenduaren eta sinesmenen pluraltasun eta askatasunaren errespetua bermatu behar du, eta giza eskubideak eta aniztasuna. Dohain hauek guztiak dituen hezkuntza ematea gizarte kohesioan eta iraunkortasunean inbertsioa egitea da.

Gainera, demografiaren erronka kontuan hartuta, Euskadik ezin ditu baztertu gaurko gazteak, luxu bat litzateke, biharko nagusiak izango baitira eta hazkuntza eta etorkizuneko ongizatea sostengatuko baitituzte. Hezkuntza sistemak egiten duen gizarteratze lanean sakontzen du behar honek, eta horregatik hezkuntza sistema sostengatzen duten eragile publiko eta pribatu guztiek eta maila guztietan bermatu behar da.

Hortaz, hezkuntza gizarte ikasi, tolerantia, begirunetsu, solidario eta kontziente bat eraikitzeko ganga giltzarri bezala ulertzen da.

Illo horretan, XXI. mendeko euskal herritarrei egokitutako hezkuntza eredu oso bat bultzatzearen hautua egiten da, kultura zientifikoa eta humanitateak konbinatuko dituen, biazaldi guztiko ikaskuntzarekin osatuko dena eta ondo prestatutako ikasleei ikuspegi kritikoa eta errealitatea eraldatzeko ematen diona. Ondo prestatutako giza kapitala metatzea funtsezko estrategia bat da Euskadiren etorkizunerako. Horregatik, hezkuntza funtsezko faktoretzat hartzen da aurrerapen ekonomikoa eta ongizatea sortzeko, eta gure hazkuntza ekonomikoaren eredu indartu eta gure ekoizpen ehunaren lehiakortasuna areagotzeko ere bai.

Hezkuntza sistemaren erronka etorkizuneko belaunaldiak prestatzea da, bai maila akademikoan, bai sozial, pertsonal eta lanerakoan ere, esparru eta aldaketa guztietara egokitze. Horretarako, aukeratu den bidea ikasleei kompetentzietan oinarritutako hezkuntza ematea da, zeharkako kompetentziak deritzenak, hau da, ikasten eta pentsatzen ikastea, komunikatzen ikastea, izaten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, egiten eta ekiten ikastea, diziplinetako kompetentziak bezala. Ikuspegi honek ikaslea bere bizitzaren bere ikasprozesuaren protagonista bihurtzea eskatzen du.

Herri erakundearen arteko ekarpena, aukera ekonomikoa gutxiagoko familiek eskolaz kanpoko eta aisiako jardueretan parte har dezaten, eskola adineko umeen integrazio ahalmenaren indargarria da. Izan ere, eskolaz kanpoko ekintzez gozatzera orientaturiko zerbitzu prestazioak, garapenak edo azpiegitura eta espazio publikoetara iristek inklusioa eta gizarte kohesioa sustatzen du.

EAJk hezkuntza sistemaren kalitatean aurrera egin nahi du bikaintasunerantz, ekitate, gizarte kohesioa, herritar-tasun aktiboa, balioetako hezkuntza, oinarritzko eskubideen errespetua eta aniztasunaren defentsa suspertuz.

EAJn bizitzarako behar diren oinarritzko kompetentzia guztiak eskuratzea oinarri duen hezkuntza eredu bat aldeztu dugu, egoera edo testuinguru errealetan arazoak konponduz, metodologia aktiboen bidez, aldi berean hezkuntza kompetentziak indartuz eta ikasten, ekiten, izaten, elkarrekin bizitzen eta komunikatzen ikasten.

EAJren iritzi hezkuntza eta prestakuntza oinarritzko tresnak dira gure udalerrri eta lurraldeen etorkizunerako, beharrezkoak garapen pertsonal eta profesionalerako, lehiakortasuna hobetzeko eta gizarte kohesiorako eta herritarren elkarbizitzarako.

Gizarte euskalduna, eleaniztuna, bizikidetzaren antolatze gaitza dena duten herri eta lurraldeak osatzeko, pentsatzeko eta ikasteko gaitza den gizarte bat eraikitzearen lan egitea; izateko, egiteko eta sortzeko gaitza den gizarte bat aurrera ditugun erronkei erantzuteko inbertsiorik onena da.

Halaber, EAJk jarraituko du bikaintasunaren, espezializazioaren eta nazioartekotzearen hautua egiten irmo, gure hezkuntza ereduaren arrakastaren gaitza baitira.

FAMILIA ETA HAURRAK

Orokorrean, haurren eta familien egoera Euskadin konparazioz ona da, Europako beste lurralde batzuen aldean, kontuan hartzen badira ongizate materialaren maila, haur eskolaratzearena, hezkuntza ekitatearena, osasun irispidearena edo gizarte inklusioaren maila.

Hala ere, oraingo jokaleku sozioekonomikoan familiei eta haurrei dagokienez planteatzen diren zertzelada garrantzitsuak seinatu eta nabarmendu behar dira.

Egun, Euskadi jaiotza tasa apalenetakoa duen Europako eskualde bat da. Ondorengo batez besteko kopurua 1,39 da emakumeko, belaunaldi ordezpenerako behar

den 2,1etik oso urrun. Epe ertainera ugalkortasuna bizkortuko dela aurreikusita badago ere, emakumeko 1,5 ume iritsi arte, jaiotza kopuruak behera egingo du ugaltzeko adinean dauden emakumeen kopurua gutxitu egingo delako.

Zifretatik harago, jaiotza tasak behera egitea ez da balioztatu behar soilik inplikazio demografikoaren edo sozioekonomikoaren arabera, baizik eta batez ere gizabanakoarentzat dituen inplikazioak kontuan hartuta, gizabanakoen bizi betetasunari eta norberaren ongizateari eragiten dio eta.

Aldi berean, lan eta familia bizitza uztartzeko zailtasunek hor jarraitzen dute, eta bide luzea dago egiteko seme-alaben hazkuntzaz koarduratzearen arloan. Daurkagun ebidentzia zientifikoak frogatzen duenez, umeen zaintza batez ere emakumeengan geratzen den bitartean, ugalkortasun tasak apalak izaten jarraituko dute.

Euskadi Estatuaren buru dago Haur Hezkuntzako lehen zikloan eskolaratzen, iparraldeko herrialdeek duten tasekin parekatzeko moduan. Hala ere, alborapen sozioekonomiko argi bat mantentzen da honelako ikastetxeetara joateari dagokionez. Horietara joatea zailagoa da gabezia egoeran edo pobrezian dauden familientzat, kide guztiak lanik gabe dituzten familientzat eta jatorriz atzeritarren diren familientzat.

Bestalde, pobrezia eta desberdintasunak gizarte talde bakoitzari oso modu ezberdinean eragiten dion giro honetan, seme-alabak euren ardurapean dituzten familiek gero eta pobrezia arrisku handiagoaren mehatxupean egon dira. Hala da, Europako herrialdeek azken urteotan haur pobrezia ezagutu dute, eta egoera horiek epe

labur, ertain eta luzera haurren bizi baldintzetan, bizi esperantzetan eta garapen eta integrazio aukeretan daukaten inpaktuaren kezka gero eta handiagoa da. Euskadi ez dago fenomeno horretatik eta kezka horietatik kanpo.

Haurretan inbertsioa egitea funtsezkoa da oraingo eta etorkizuneko belaunaldien garapen iraunkorrerako. Zuzena da, errentagarria, denon onerako da eta garapen ekonomiko eta soziala suspertzen du, produktibitatea handitzen delako eta hazkuntza iraunkorra bermatzen duelako.

EAJn sinetsita gaude prebentziorik eraginkorrena estrategia integratuen bidez lortzen dela, gurasoentzako laguntzak eta kalitatezko haur hezkuntza, osasuna, etxebizitza eta gizarte zerbitzuak konbinatuta, horrela haurrei euren potentzial guztia aprobetxatzen laguntzeko, herri erakundeen maila guztietako elkarlanari esker.

Familia egiturak, familia bizitzaren ibilbideak eta familia barruko harremanak aldaketa prozesu sakonean sartuta daudela badakigu. Horregatik, EAJn familiari eta haurrei laguntzeko estrategia oso bat garatzearen alde gaude, familia egitura guztiek onarpen eta gizarte-babes maila bera izan dezatela bermatzeko, ideia bata abiapuntutzat harturik, hots, familian eta haurrengan inbertitzea familia egiturari lotutako gizarte desberdintasuna moteltzea dela eta, bizi diren familia mota gorabehera, haur guztien aukerak eta ongizatea bermatzea dela.

EAJ konpromisoa hartzen du seme-alabak dituzten familiei laguntza ekonomikoa emateko, gutxieneko diru baliabideak familia guztiei bermatuz, haurren pobrezia aurrea hartzearen.



EAJk konpromisoa hatzen du familien forma eta lotura aniztasuna babestu eta jagoteko eta belaunaldien arteko harremanak sustatzeko.

EAJk konpromisoa hartzen du haur guztiek umeen arreta zerbitzu irisgarri, bidezko eta kalitatezkoak jaso ahal ditzaten.

EAJk konpromisoa hartzen du haurtzaroko arazoek de-tekzio goiztiarra bultzatzeko eta arreta goiztiarreko zerbitzuen garapenean aurrera egiteko.

GAZTEDIA

Gazteak Euskadiren oraina dira, eta euren gizarte eta ekonomia garapenaren protagonistak, eta, beraz, daukagun balio handienetako bat. Herri eta gizarte bezala aurrera egin nahi badugu, aurrera egin eta garatu, gazteen aldeko hautua argi eta garbi eta irmo egin behar dugu, entzun, lagundu eta eurekin eraiki Euskadiren etorkizuna.

EAJn sinetsita gaude gaztedia gure kapital sozial onena dela. Euskadik belaunaldi ordezpenean azeleratu behar du urgentziaz. Gazteak «ez txertatzeak» duen kostu soziala ikaragarria da. Gazteak gizarte eta lan esparruan zenbat eta lehenago txertatzen ditugun orduan eta lehenago sartuko dugu indar berria gure udal eta lurraldeetan aitzindaritzara berreskuratzeko.

Herri eta gizarte bezala aurrera egin nahi badugu, aurrera egin eta garatu, gazteen aldeko hautua argi eta garbi eta irmo egin behar dugu. Entzun, lagundu eta eurekin eraiki Euskadiren etorkizuna.

Gazteak bereziki irekiak dira aldaketan aurrean, eta gizarte eraldaketek eragina dute euren bizi baldintzetan, euren balioetan eta euren jarreretan. Aldi berean, gaztedia aldaketara egokitzeko eta ideia eta ezagutza berriak emateko ahalmen handiena duen gizarte taldea da.

Enplegua eta etxebizitza lehentasunezko ardatz bi dira EAJrentzat. Udalerrietatik eta lurraldeetatik, hau da, gaztediaren politika bat hezurramitzen den lekutik, horiek dira gazteek euren bizitza proiektu independentea garatzeko oztoko nagusiak.

EAJren iritziz, Euskadiko udalerriek eta lurraldeek irizpide propioa duen gaztedia, autonomia, ekimenduna, partaide-tza zalea, solidarioa eta garapen ekonomiko eta sozialarekin konprometua kontuan hartzen jarraitu behar dute. Hau da gure balio nagusietako bat eta etorkizunaren bermea.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN PAREKOTASUNA. GENERO BERDINTASUNA

EAJn uste dugu berdintasunak pertsona guztien autonomia garatzen lagutzen duela esparru pertsonalean eta sozialean, balio solidarioak indartzen dituela, koerantzukizuna indartzen duela eta demokrazian aurrera egiten laguntzeko eta gizarte zuzenago kohesionatu eta garatu bat eraikitzeko balio duela.

Erlazio estua dago berdintasunaren, bikaintasunaren eta berrikuntzaren artean. EAJn uste dugu Euskadiko udalerri eta lurraldeen garapena aukera berdintasunean baino ezin dela eraiki eta berezi-bereziki emakumeen eta gizonen aukerak eta lan baldintzak berdinduz.

Ezagutzak eta talentuak diferentziak markatzen dituen mundu batean, antolakundeek ez dute desaprobatxatu euren ahalmenen % 50, luxua litzateke.

EAJn emakumeek enpresa ehunean berdintasunez parte hartzearen hautua egiten dugu, eta ekoizpenaren eta ezagutza garapenaren arloetan ere bai, izan ere guzti-guztion ekarpenek soilik lortuko baitute gizarte moduan dauzkagun erronka eta desfioei aurre egiteko dauzkagun ahalmenak aberastu eta hobetzea.

Genero desberdintasuna erronka sozial nagusietako bat da gure udalerri eta lurraldeetan, eta emakumeen aurkako indarkeria da horren adierazpenik gorena eta ankerrena. Eskubide urratze honi amaiera ematen ahal den ahalegin guztiak erabili behar ditugu, emakumeen aurkako indarkeria arbuiatzeko gizarte kontzientziazteko lana areagotuz, bereziki belaunaldi gazteen artean eta bereziki eragonez indarkeria horren jatorrian. Hori lortzeko, martxan jarritako ekinbideak sendotzeari eta gazteak tresnaz eta baliabidez hornitzeko estrategia berriak garatzeari ezinbesteko deritzogu, indarkeria sexista ezagutu eta antzeman ahal dezaten aurka egiteko, hezkuntzan eta jokabide sexisten prebentzioan lan eginez eta orotariko erasoan aurrean rol aktiboagoa izatera animatuz eta baliabide egokiak eskainiz.

EAJren ustez, finkatutako egitura instituzionalak eta jarduera politikorako gaitasuna daukagu; zeregin garrantzitsu bat geratzen zaigu, hots, gizarte aktibatzea, pentsaera aldaketa bat lortzeko, konbentzitura egon gaitzen emakumeen eta gizonen berdintasuna bezalako balioek pertsonen bizitza kalitatea hobetzen dutela eta gizarte zuzenago, askeago eta iraunkorrago baterantz eramango gaituztela.

ADINEKOAK

Gure bizi esperantza Europako handienetako bat da. Euskadiko udalerrri eta lurralde guztietan ongizate maila, gizarte babes eta osasun sistema onak ditugulako gertatzen da hori.

EAJren erronkak gure adinekoen adina modu osasungarriagoan eta beti ahalik eta aktiboen luza dadila izan behar du. Erronka honetan bizi ohitura osasungarriek eta adineko pertsonak gizartean aktiboki parte hartzeak funtsezko rola betetzen dute.

Gure gizarteari adinekoek egin dioten ekarpena aitortuta, EAJk eta tokiko gobernuetatik eta foru gobernuetatik, gizartean parte hartzeko eta ekarpenak egiteko posibilitateak eta mekanismoak sustatu eta eskuratu behar dizkiegu.

EAJk bere konpromisoa adierazten du «Zahartze Aktibo» deritzona sustatzen, aktiboki zahartzeko ideia aldatu eta horren ordeztu aktibo bizitzea sarrarazteko.

EAJn uste dugu pertsona guztiek dutela beren buruaz erabakitze eta erabaki libre eta borondatezkoak hartzeko behar dituzten laguntzak jasotzeko eskubidea. Hori zahartze aktibo sustatzeak beragan duen printzipio bat ere bada, bizi proiektu propio bat aukeratu eta eraikitze ahalmena bezala ulertuta.

EAJn uste dugu parte hartzea eskubide bat dela adineko pertsonak, bizi diren udalerrri eta lurralde guztietan, gizartearen eraikuntzaren protagonista izateko duten eskubidea aitortzearekin batera datorrena. EAJtik, beraz, adinekoen koerantzukizuna suspertuko dugu, eta gizarteko estamentu guztiena, bizitza aktibo eta osasuntsuko proiektuak eraikitze.

MENDEKOTASUNA

Biztanleria zahartzeak mendekotasunaren fenomenoak dakar berarekin. Gure betebeharrak da horren ondorioak ezitze saiatzea eta fenomeno hori jasaten duten pertsonak beharrezko zaintza maila eta bizitza kalitate duina izan dezaten ahalegintzea.

Lehenengo eta behin, EAJk mendeko pertsonak bizilekuan geratzeko laguntzei bidea emateko neurriak eta ekintzak burutuko ditu. Mendeko pertsonak bizilekuan geratzeko laguntza hori orientazio zerbitzua hedatzea eta laguntza teknikoak bezalako jarduerak multzo baten bidez burutuko da, pertsonen bizilekuan geratzeko au-

kera emanez eta etxean behar diren hobekuntzak eta egokitzapenak egin eta teknologiak bertara hurbilduz, eta egoerarik ahulenean dauden mendeko pertsonak bakartzeari aurrea hartzeko prebentzio neurriak bultzatuz, komunitateratzeko programen bidez.

Gainera, EAJrentzat, mendeko pertsonen arretak arreta zentroen sarea finkatzea eskatuko du, lurraldez orekatuta, irispide unibertsalekoa eta berme publikoduna; era berean, kudeaketa formularen aurrerapausoak eskatuko ditu, zentroen arteko eraman-ekarri gogoz kontrakoak edo mendeko egoeran dagoen pertsona bere ohiko inguruetatik deserrotzea saihesteko. Egoitza zentroen sarearen garapena eta espezializazioa, pertsonengan zentratutako sare aurreratu gisa, bai arreta sozial bai arreta sanitario oso konplexuko egoerei erantzuna emango diona, eta, pertsonak non eta nola artatua izan nahi duen aukeratzeko duen eskubidea lehenetsiz, zerbitzuetarako irispide unibertsala mendekotasun graduaren arabera eta/edo behararen arabera egiten dela, ahalmen ekonomikoa gorabehera, bermatzen duten ituntze/kudeatze ereduak ezartzea.

EGOERA AHULEKO PERTSONAK

EAJren iritziak, gizarte kohesioa bizikidetzara era bat da, baliabideak eta balioak elkarrekin banatzeko era bat eta gizartean dauden ezberdintasunak errespetatu eta ulertzeko era bat. Praktikara eramateak justizia soziala eskatzen du, eta herritarren eskubideak benetan egikaritzearen eta inklusioaren aldeko politika publikoak garatzeari garrantzi berezia ematea ere eskatzen du, gizarteko maila ahulenei laguntzeko jarduerak lehenetsiko dituzten politika publikoak, alegia.

EAJn Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema finkatzearen hautua egiten dugu, erantzukizun publikoko sistema bat baita, titulartasun publikoko eta itunpeko pribatuko zerbitzu eta ekipamenduen prestazioek osatua.

EAJn uste dugu herritarrek berdintasunez artatzeko modu bakarra kalitatezko zerbitzu publikoak baldintza berdinetan ematea dela. Ekitatearen ikuspegitik, gizarte politikak aukera berdintasuna suspertzera zuzentzen dira. Berdintasunaren ikuspuntutik, politika horiek gizarte taldeen arteko desberdintasunak gutxitzen laguntzen dute, eta herritar guztiek izan behar dituzten gutxieneko batzuk ematen ere bai. Hau da EAJk aldarrikatzen dituen birbanaketa politiken oinarria.

IMMIGRAZIOA, AUKERA BAT

Aniztasuna gure historiaren eta gure identitate kolektiboaren funtsezko parte bat da. Immigrazioak gure gizartearen udalerrri eta lurralde guzti-guztietan dagoeneko badagoen aniztasuna handitu egin du eta konplexutasuna ekarri dio. Kultura aniztasuna, multikulturaltasuna edo identitate pluraltasuna demokratikoki kudeatu behar diren errealitateak dira.

EAJren gizarte politikak bilatzen dutena da giza eskubide guztien eta pertsona guztien duintasunaren aldezpena, justizia sozialaren susperraldia eta inklusiozko gizarte bat eraikitzea, pertsona guztiek, jatorria edo kondizioa gora-behera, bizitza normal, bete eta duina izan ahal dezaten.

EAJk ezinbestekotzat jotzen du etorkinen pertsona taldeak gizarteratzea, benetan eta sendo, ongizatearen eta bizikidetzaren berme delako, bazterkeria edo kanporatze prozesuak hasten ez direla jagonez. Era bereran, kulturen arteko bizikidetzaren sustatzearen, errealitate kultural eta soziala onartzearen, eta gure udalerrri eta lurraldeetara etortzen eta biltzen diren pertsonetako elkarrizketaren hautua egiten du.

EAJn gizarteratze, herritartasun eta bizikidetzaren interkultureko politiken hautua egiten dugu herri erakundeen maila guztien artean koordinatuta. Era berean, gizarteratze eta bizikidetzaren politika horiek gizarte zibilaren eta bere antolatzaileen partaidetzaz eta ardurakidetasunaz garatu behar dugula deritzogu.

UDALZAINGOA, KOMUNITATEAREN POLIZIA

Helburua herritarren segurtasuna bermatzea da, gizartearen oinarritzko beharra baita; eta pertsonen bizitza kalitatea jagotea, denen arteko errespetua eta guztien bizikidetzaren baketsua ziurtatuz.

Komunitateari hurbiltasuneko eta hurreko zerbitzua ematen dio Komunitatearen Polizia edo Auzoko Polizia bezala, konfiantzan eta partaidetzan oinarrituta, gatazken prebentzioan eta gatazkei aurrea hartzen eragiten du bereziki, eta poliziaren intereseko informazioa lortzen ere bai.

Bide ematen dio herritarren partaidetza eredu bati, herritarren segurtasun eskaerak eramaten dituzten mekanismoen bidez eta segurtasun arloko politika konkretuak ezartzeko laguntasuna eta aholkua emanez. Helburu horri begira, komunitateko eragile sozialen eta segurtasun-operatzaileen artean elkarrizketa bat eraikitzen du.

Horrela prebentzio lanak errazten ditu.

Herritarrei zerbitzu publiko eraginkor bat emateko lankidetzan eta elkarlanean ari da modu aktiboan, Ertzaintzarekin batera -honekin Euskal Polizia osatzen baitu-, besteak beste, alkateen eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburuaren artean sinatutako polizien koordinazio eta elkarlanerako esparru hitzarmenen bidez, edo Ertzaintzarekin partekatutako kudeaketa proiektuan txertatuz, etxeko indarkeria / genero-indarkeria kasuak tratatzeko (arrisku balioztapena).

Emakumearen presentzia areagotzen saiatzen da, langileen beharrezko belaunaldi erreleboari esker eta berdintasun arloan politika positiboak bultzatuz bai sartzeko bai haien garapen profesionalean uztartzeko.

Polizia funtzionarioen prestakuntzarik handiena sustatzen du, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin elkarlanean, etorkizuneko erronkei aurre egiteko, aldatetara eta teknologia berrietara errazago egokitzekeo estrategiak bultzatuz.

GOBERNANTZA ONA. TOKI ETA FORU GOBERNU IREKI ETA GARDENEN KUDEAKETA

Euskadiko udalak, gaur-gaurkoz, gobernu onaren eta kudeaketa efiziente eta eraginkorraren erreferentzia dira. Hurrengo erronka EAJrentzat bikaintasunerantz aurrera egitea da, pertsonen zerbitzurako garapen iraunkor eta integratzaile baterako.

Herritar aurreratu eta parte-hartzaileek aitzindaritzaren erdigarri, aurreratu eta adimentsua behar dute eta hori eskatzen dute. Gaur egun, «herritar aktibo eta parte-hartzaileak» eredia badago ezarrita.

Gobernantza Onaren kontzeptua toki eta foru gobernu ororen eskakizun saihetsezin eta intrintsekoa da, kudeaketa aurreratuaren eta garapen lokal iraunkorraren bikaintasunerantz etengabe hobetzeko aukera delako.

Gobernantzak erabakiak hartzen inplikaturako eragileak barnean hartzen ditu. Gobernantza kontzeptuak barnean hartzen du bai herri erakundeak eta eragileak arteko maila anitzeko lankidetzak (elkarlan publiko-privatu-soziala), bai ekosistema lokal bakoitzaren barrukoa eta bere berariazotasuna tamaina eta profil soziodemografikoari, garapen mailari eta egoera ekonomikoari dagokienez.

AURREKONTUAREN ZORROZTASUNA

Kontu publikoak finkatu beharra eta zorroztasun ekonomikoa eta aurrekontuaren zorroztasuna gure ongizate mailarekin eta funtsezko zerbitzu publikoen mailarekin uztartu behar direnez, ekitatezko, mailaz mailako eta behar adinako zerga sistema bat bermatu beharko da.

Gure zerga ahalmenaren hobekuntza da, gure sistema fiskala eta zerga sistema birpentsatu eta jokaleku berrietara egokitzeko ahalmena hobetzea, gure ehun ekonomikoa sendotzera eta herritarren beharrei erantzutera, aberastasuna birbanatzera eta gure bizitza maila eta gizarte babesaren maila mantentzera begira. Zerga iruzurraren aurkako borrokan lan egitea ere beharrezkoa da.

EAJren ikuspegitik toki eta foru gobernuen kudeaketa ekonomikoak zorroztasun eta iraunkortasun printzipioak atxiki behar du. Aurrekontu orekaren printzipioa mantendu behar da, iraunkortasun ekonomikoaren bermagarri.

EAJk uste du pertsonen oinarritzeko beharrekiko sentsibilitateak eta konpromisoak toki eta foru gobernuen funtsezko ekintza printzipioa izaten jarraitu behar dutela. Funtsezko zerbitzu publikoak eta gizarte politikak bermatzea Euskadiko udalari eta lurraldeetan kohesioa eta bizitza kalitatea oinarritzen den ardatzak dira.

EAJren iritziz, ekitatezko, mailaz mailako eta behar adinako zerga sistema bat babestu behar da, sarrera eta gastu publikoen artean oreka onena bermatuko duena, baliabide publikoen kudeaketa koordinatu, efiziente eta eraginkor batekin.

Gure helburua herritarren errealitatearen eta enpresa ehunaren arabera pentsatu, hitzartu eta diseinatutako zerga politika bat bultzatzen jarraitzea da. Ekitate, progresibotasun, neutraltasun, gardentasun eta sinplifikazio printzipioak indartuko dituen zerga politika bat. Sortutako aberastasuna ekitatez birbanatuko duen zerga politika bat.

Zerga iruzurra eta gizarte laguntzetako iruzurra zerga sistemaren eta gizarte politiken ekitatez ezaren eta elkartasunik ezaren elementu nagusia dira. Orotariko iruzurren aurka borrokan jarraituko dugu, herritarren elkarbizitzaren printzipio oinarritzeko urratzen dituen jokabide iruzurti ororen disuasioa eta errepresioa indartuko dituzten ekintzen bidez.

EAJren tokiko gobernuen eta foru gobernuen kudeaketa printzipioak hauek izango dira:

GARDENTASUNA

Gardentasuna lehentasun bilakatu da eta arlo guztiak zeharkatzen ditu prozedurei eta jardurei buruzko informazioa eta herritarren aurrean kontuak ematea inplikatzen duen guztian.

Gardentasunaren jomuga herri erakundeekiko konfiantza eta horien funtzionamendu maila finkatu eta hobetzea da, aldi berean, eskaintzen diren zerbitzuen kalitatea hobetuz. Horretarako, urrats bat gehiago ematea planteatzen da, herritarrentzat eta lurraldeetako erakundeentzat interesgarria den informazio publikoa ahalik eta bizkor eta erraz jasotzeko tresna egokiak xedatzen direla bermatuz, kudeaketaren eraginkortasunari laguntzeko eta jendaurrean eskura jartzen den informazio guztiari erabilgarritasuna emateko.

EAJtik toki eta foru gobernuak legearen eta herritarren eskakizun berrietara egokitzeko lanean sakonduko dugu, sinergiak eta sareko lana aprobetxatuz aurrera egiten lagunduko dieten aplikazioak hobetuz gardentasunaren eta kontuak ematearen kultura berri bat ezartzeko helburua hartuta.

PARTAIDETZA

Parte hartzeak, araudiak egitearekin erlazionatutako proiektu estrategiko eta jardueren inguruan prozesu bizkor eta operatiboak bultzatuz herritarrak politika publikoen zikloan txertatzea bezala ulertuta, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean aldarrikatutako gobernu ona eta administrazio ona izateko eskubidearen bermea izan behar du.

EAJn gogatuta gaude elkarrizketak eta gardentasunak proiektuen legitimotasuna handitzen dutela eta prozesu demokratikoak aberasten dituztela. Politika publikoen kudeaketak elkarrizketa asko eta autokritika eta apaltasun ariketa bat eskatzen ditu. Komunikatzeko biderik egokienak erabiliz parte hartzea eta elkarrizketa pizteko eta errazteko estrategia eta tresna berriak esploratuko ditugu.

TOKI ETA FORU GOBERNU IREKIAK ETA PERTSONENGANDIK HURBILAK

EAJk tokiko gobernuetatik eta foru gobernuetatik zerbitzuak pertsona guztiei hurbildu nahi dizkie, eta behar dituzten guztientzako eskura dauden zerbitzu eta laguntza guztiei balioa eman nahi die. Horretarako, sareko lana bultzatuko dugu, eragile guztien arteko koordinazioa eta elkarlan publiko-pribatua suspertuz, ematen diren zerbitzuen eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko helburuz.

Herritarren beharrak hobeto ezagutu eta politika publikoak modu hurbil eta eraginkorrean orientatu ahal izateko etengabeko jarraipen dinamika bat dakar, gainera.

E-ADMINISTRAZIOA

Herritarrek harremanetarako ohiturak aldatu dituzte, behin betiko eta ez itzultzeko. On line eremua gaur egun jarraitzeko bidea erakusten ari den biztanleriaren beharlarako lehen erreferentzia da.

EAJren tokiko gobernuetatik eta foru gobernuetatik e-administrazioan aurrera egiten jarraituko dugu, zerbitzu publikoen eboluzioa bultzatzen personalizagarriak, proaktiboak eta plataforma desberdinetatik irisgarriak izan daitezen eta kalitatea eta segurtasun bermatuta eduki ditzaten.

KALITATEZKO ZERBITZU IRAUNKORRAK GARATU ETA FINKATZEA

Euskal gizartearen eboluzioa hautematen den bizitasun eta berehalakotasunak etengabe eskatzen digu espazio publikoa birdefinitzea toki eta foru gobernuetan.

EAJren iritiz, kalitate, modernizazio eta berrikuntza kontzeptuak eskakizun bat dira zerbitzu publikoen kudeaketan.

EAJtik toki eta foru administrazioen erreforman eta modernizazioan sakonduko dugu, helburu argi batekin: herritarren arreta eta zerbitzua hobetzea, izapideen eskakizunak eta espedienteen ebazpen administratiborako denbora minimora gutxituz. Aldi berean, zuzen dimensionatutako zerbitzuak bultzatuko ditugu, prozedurak, izapideak eta protokoloak sinplifikatuz, irispidea erraztuz eta zerbitzuak deszentralizatuz eta herritarrei hurbilduz, kostuak jaitsiz eta kalitatea igoz.

KONTUAK EMATEA

Kontuak ematea toki eta foru kudeaketa jendearen iritzipean etengabe jartzeko modu bat da, euskarri teknologiko egokiak zuzeneko kontaktuarekin konbinatuz herritarrentzako aurkezpen baten bitartez.

KONTROLA ETA EBALUAZIOA

Kontrola neurketa sistematiko eta irisgarria da, politikek eta jarduerak sortzen duten balio publikoa ezagutzeko eta administrazio zerbitzuen efizientzia ezagutzeko, horiek hobetze aldera.

Programen eta laguntzen jarraipenean eta kontrolean efizientzia handitu behar dugu. Kontrola hobetuko dugu zerbitzu prestazioan iraunkortasuna eta efizientzia bermatzeko. Politika publikoak gardentasunetik eta erantzukizunetik ebaluatzearen kulturarantz aurrerapausoak bultzatuko ditugu. Gizarte laguntzen benetako funtzioari balioa emateko esfortzuak egingo ditugu, inklusiorako eta gizarte kohesiorako tresnak baitira.

HERRI ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA ETA ELKARLAN PUBLIKO-PRIBATUA

Horrek esan nahi du kanpora irekitzea ahaleginak areagotuz elkarlan publiko-privatua eta bestelako esparruetan, esate baterako, nazioartekotzean, lankidetasunetan, herritarrengana hurbiltzen eta administrazioaren burokrazia minimizatzen.



› EUDEL

EAJk adierazten du EUDEL aitortzen duela Euskadiko udalen solaskide, eta udal balio eta interesen eledun, koordinatzaile eta bultzagile lana aitortzen diola.

EAJren ustez, EUDELen rola udal bikaintasunean abangoardiarako esparru izatea da, tokiko gobernuen topagune izatea da, bikaintasunerantz proiektatzeko, eta udalgintza aurreratu eta iraunkorra lortzeko Euskadiko gainerako herri erakunde eta eragileen funtsezko solaskide izatea.

EAJren iritziz, EUDELeK udalen arteko hausnarketa estrategikoko elkarlan esparruak ematen jarraitu behar du, gobernantzako eta lurralde garapeneko «ekosistema lokal» aurreratuak, osoak eta integratuak, bultzatzeko, herri erakundeekin eta inplikaturako eragileekin elkarlanean.

DEKALOGOA

EAJk toki eta foru hauteskunde hauetarako aurkezten duen emakume eta gizon taldeak esperientzia, gaitasuna, motibazioa eta ilusioa du Euskadiko herri eta hiri guztietan komunitatea egiten eta balioetan elkarrekin bizitzea garatzen lanean jarraitzeko.

Hauek dira talde honetako emakumeen eta gizonen ezaugarriak:

KONPROMISO ETIKOA

EUDELe bultzatutako Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Politikaren Kalitate Instituzionalerako Konpromiso, Jokabide eta Gobernu Onerako Kodearen arabera, EAJren konpromisoa da «osotasuna, eredugarritasuna, alderdikeriarik eza, gardentasuna, zintzotasuna eta begirunea» printzipio hartuta eta horien arabera egingo dutela euren langintza guztia foru eta toki kargudun guztiek. Etika, kontuak ematea, gobernu irekiak, gardentasuna eta partaidetza dira gure balioak eta tokiko gobernuen eta foru gobernuen kudeaketa egiteko daukagun era.

ONDO EGINDAKO LANAREN ESPERIENTZIA

Antolakuntza modernizatuz eta zerbitzuak berrituz, kudeaketa publiko aurreratuaren bidez eta kudeaketako bikaintasunerantz etengabe hobetzea eta kalitatea baliatuz, EAJren toki eta foru kargudunen esperientzia eta udalerrien eta lurraldeen garapenean erakutsitako lan ahalmena eta kudeaketa efizientea eta eraginkorra egiteko gaitasuna.

BESTE MAILA INSTITUZIONAL EKONOMIKO ETA SOZIALEN LANKIDETZA

Akordioak ehuntzeko gaitasuna, gure herri, hiri eta lurraldeetan elkarrekin bizi diren pertsonen onura emango dieten emaitzak lortzeko. Akordioak egiteko gaitasuna, maila anitzeko lankidetzaren eredu baten bidez eta eragile instituzional eta sozialen elkarlanaren eta akordio publiko-pribatuen bitartez.

Azken batean, EAJk toki eta foru hauteskunde hauetara gai diren emakume eta gizonen taldeak aurkezten ditu, esperientziadunak eta motibatutak, toki eta foru gobernuetatik, behar diren politika publikoak burutzeko, Euskadiko udalerrri eta lurralde historikoak garatu eta bilakatzeko:

- 1** | **INKLUSIOZKO UDALERRI ETA LURRALDE KOHESIONATU ETA SOLIDARIOAK.** Lana area-gotu behar dugu pertsona guztiek bizitza betea eta duina lor dezaten, pertsona guztien arteko balioetako bizikidetzaz bultzatuz, gizarte kohesioa bultzatuz, komunitatea eginez.
- 2** | **UDALERRI ETA LURRALDE EUSKALDUNAK.** Euskara gure eguneroko agendetan kokatu behar dugu jarrera ireki eta errespetuzkoarekin. Euskara gero eta gehiago hizkuntza zubia bihurtu behar dugu gizarte eleaniztun eta kulturantzun batean.
- 3** | **GENERO BERDINTASUNAREKIN KONPROMISOA HARTUTAKO UDALERRI ETA LURRALDEAK.** Gizarte garatuak gizarte orekatua izan behar du. Beharrezkoa da genero berdintasuna politika zeharkatzailea izatea gizarte, lan eta ekonomia eremu guztietan.
- 4** | **LURRALDE ETA UDALERRI GAZTEAK.** Gure belaunaldi prestatuena aitzindari izan behar du Euskadik behar duen eraldaketa sozial eta ekonomiko berrian, parte hartuz eta bere eza-gutza eta bere elkartasun eta justizia balioak gizartearen zerbitzura jarritz.
- 5** | **TRADIZIOA ETA MODERNITATEA KONBINATZEN DUTEN UDAL ETA LURRALDE KULTURAL KANPORA IREKIAK.** Kultura dinamika sozialaren elementu giltzarri bat da. Babestu behar den kultura tradizio eta ondare bat daukagu eta aldi berean mundura irekita egon behar dugu.
- 6** | **EKONOMIA JARDUERA DUTEN UDALERRI ETA LURRALDE LEHIAKOR ETA KUALIFIKATUAK.** Udalerrri eta lurralde bat lehiakorra da bere enpresak, bere pertsonak eta bere herri erakundeak lehiakorrek badira. Balio erantsiaren eta industria aurreratuen lehiakortasuna. Eta horretarako, prestakuntza funtsezkoa da. Etengabeko prestakuntza denoi dagokigun lana da, herritarrei, enpresei eta herri erakundeei. Ezagutzaren gizartearen bizi gara eta horrek esan nahi du etengabeko prestakuntza behar bat dela.
- 7** | **UDALERRI ETA LURRALDE EKINTZAILE, ADIMENTSU, BERRITZAILE ETA SORTZAILEAK.** Sormenaren, ahaleginaren, berrikuntzaren eta ekintzailetzaren balioak barneratu eta garatu behar ditugu gizarte eta ekonomia esparru guztietan. Teknologiaren balioa ere aprobetxatu behar dugu. Teknologia, gure enpresa ehunaren lehiakortasunaren oinarri; teknologia, informazioaren eta zerbitzu publikoen irispidea errazteko; teknologia, bizitza kalitatearen zerbitzura gure herri eta hirietan.
- 8** | **KONEKTATUTAKO UDALERRI ETA LURRALDE IRAUNKOR ETA OSASUNGARRIAK.** Dagoen garraio publikoaren sistemaren inguruan egituratutako konektagarritasuna eta garraio sistema iraunkor batekin mantendu eta indartu behar den errepide mapa. Ingurumenaz arduratuz eta klima aldaketaren aurka borrokan. Beharrezkoa da gizarte osasuntsu eta osasungarriaren eredu bat lantzea ere, osasuna eta prebentzioa suspertuz eta gure janariaren, uraren eta arnasten dugun airearen kalitatea kontrolatuz.
- 9** | **UDALERRI ETA LURRALDE ERAKARGARRI ETA ABEGITSUAK.** Gure hiri eta landa eremuen kontserbazioa, antolamendua eta eguneratzea gure ardura da, eta, aldi berean, indartu nahi dugun kalitatezko turismorako erakargarria.
- 10** | **UDALERRI ETA LURRALDE GARDENAK ETA PARTE HARTZEKOAK.** Iritzi, proposamen eta ideia guztiak behar ditugu. Euskadi denon artean egiten dugu. Aldi berean, gardentasunak eta zintotasunak gizarte guztiaren, herri erakundeen, gizarte antolakundeen eta enpresen balioak izan behar dute. Etika indibiduala, etika kolektiboa eraikitzeko.

